



ARGIA

22-27. orriak

Ezkerra bigarren olatuaren aurrean

+ COVID-19ari aurre egiteko,
osasunaren autogestioa

#2.708 | 2020 / 11 / 15 | 3,90 €



***Txatarra nagusi
beroak itxitako
eski-estazioetan***

10 | NET HURBIL



***"Euskararen
borroka
maratoia da"***

28 | EUSKARALDIA



***Eskoletako
zuzendariekin
COVID-19az***

36 | HEZKUNTZA

EUSKARALDIA Gasteiz

15 EGUN EUSKARAZ

GEHIAGO, GEHIAGOREKIN,
GEHIAGOTAN



PARTE HARTU



azaroaren 20tik abenduaren 4ra

Eman izena > euskaraldia.eus



Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU

AZALEKO IRUDIA:
XABIER SAGASTA

Iritziak

- 17 | KARMELO LANDA
- 18 | SONIA GONZÁLEZ
- 19 | IMANOL ALVAREZ
- 19 | CASTILLO SUÁREZ
- 20 | GORKA MORENO

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 40 | DENBORAREN MAKINA
- 41 | ARGIA KOMUNITATEA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 54 | ARGÍ-KONTRA: NAHIA ZUBELDIA AROZENA
- 58 | BERANDUEGI



33 | ELKANO PIZKUNDEKO HUMANISTA UTOPIKOA?

Ekai Txapartegik *Gogoa* aldizkarian urrian idatzitako artikuluarri erantzun dio erreportaje honen bidez Idoia Arrietak. Zein ziren Elkanoren helburuak Espainiako Koroak ordainduta egin zuen mundu itzulian? Pizkunde garaiko "humanista" deitzeko oinarriak ba al dago?

Elkarrizketak eta erreportajeak

10 | NET HURBIL

Beroketak eski-estazioa hil duenean, turisten oroigarri herdoilduak geratu dira zutik

Pello Zubiria Kamino

12 | PERTSONAIA | MIKEL IDOATE

"Pilota bazterreko bihurtzeko arriskuan dago"

Reyes Ilintxeta

22 | BIGARREN OLATUA

"COVID-19aren, sumisioaren eta eraso kapitalistaren birusei aurre egin"

Zigor Oleaga

28 | EUSKARA

Pandemiak baldintzatutako Euskaraldiak arigune-etan ipini du erronka

Onintza Irureta Azkune

36 | IKASTETXEETAKO ZUZENDARIAK

"Kudeatzen zailena izaten ari da zentzurik aurkitzen ez diegun protokolo batzuk segitu behar izatea"

Mikel Garcia Idiakez

44 | UXUE ALBERDI

"Automatikoki gutxien da literatura femeninoarekin lotzen den guztia"

Amalia Lekunberri Ansola

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea
Lehendakaria
Bego Zuza
Erredakzioa
Amalia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizaguirre, Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Jone Markuleta, Lander Arbelaiz, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga
Diseinua
Maitane Gartzandia
Argazkilaria
Dani Blanco
Produktzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.
Administrazioa:
Jone Arzallus, Mari Karmen Loarte
Salmenta
Idoia Arregi, Karlos Olaso, Olatz Korta
Idazkaritza
Aloña Sorraluze, Bego Zuza
Web garapena
Asier Iturralde
Informatika
Iametzta Interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012
ISSN
0213-909X
Batzorde parekidea
72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa
komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonoa

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa
Xalbardin baita. 64122 Urruña
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina
31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA
honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta
interaktiboa

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaltu eta argitaratu ditzakezu, gure egilek aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Lehentasuna

Politikoki zuzena izateak behartzen zaitu onartzera osasuna eta hezkuntza, besteak beste, zure politiketan lehentasun direla. Sutan jartzen probatzen da eltzea, ordea. Pandemia etorri denetik, ospitale eta ikastetxeetako langileak aspaldi datozen gabeziez mintzo dira. Haserre. Asteotan lehen mailako arreta eta Osakidetzako ospitaleetan greba egiten ari dira EAEn. Eta ordezkaritza duten sindikatu guztiak batuta ikustea ez da egunero gertatzen. Osasuna lehentasuna izatea hitzetan ezezik zenbakitan ere islatu behar da. Eta, gaur gaurkoz, datuek diote 32 ospitale eraiki daitezkeela AHT Gasteizen sartzeko lanen kostuarekin.



#SOSOSTALARITZA



ITXI AURRETIK, ONDOKO
JATETXERA JOAN GARA
KAFERA ETA JABEA
NEGARREZ HASI ZAIGU.
DENA AHALIK ETA
ONGIEN EGITEN SAIATU
ARREN, JAURLARITZATIK
KRIMINALIZATUAK SENTITU
DIRELA ("TABERNAK GARA
GUZTIAREN ERRUDUN?")

@larbelaitz



OSTALARI ANDANA ATERA
DA KALERA, SEKTOREA
DESAGERTZEKO ARRISKUAN
DAGOELA SALATZERA.
ALEMANIAN EGIN DUTEN
PLANAREN ANTZEKOA
BEHAR DA URJENTEKI,
DITUZTEN GASTU FINKOEN
%75 KUBRITUKO DIENA
GUTXIENEZ

@SantiaagoLopez



EZ DIEZAGUTELA ZIRIA
SAR: DIRUA BADAGO,
BAINA EAJ-PSOE-K BESTE
LEHENTASUN BATZUK
DITUZTE: PETRONOR,
IBERDROLA, AHT

@igaztelubilbao



HAU KATE BAT DA: TABERNAK
IXTEAREN ATZEAN,
KALTETUAK ATERAKO
DIREN LANPOSTU ASKO
DAUDE: KOMERTZIALAK,
BANATZAILEAK,
GARRAIOLARIAK...
ZERRENDA OSO LUZEA DA

@Ostalaritzabizi



BOBY / LIBERATION

Indarkeria polizialaren berri ematea debeku

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Azaroan hasi dira "Ordenuaren mantentzeko eskema nazional berria" deitu dokumentuaz eztabaidatzen Frantziako Legebiltzarrean. Hemezortzi hilabeteko gogoetaren emaitza da 29 orriko dokumentua, zeinetan zangopilatzen diren kazetarien eskubideak. Horrez gain, LBD40 balen eta GM2M granaden erabilpena baimentzen die poliziei eta jendarmeei.

"Hitz eman nuen ezingo zela gehiago polizien eta jendarmeen irudirik zabaldu sare sozialetan; hitza bete dut, legeak debekatuko duelako irudi hauen hedapena". Horra Gerard Darmanin Frantziako Barne ministroak argi utzi duena. "Ordenuaren mantentzeko eskema nazional berria" deitu lege-proposamenaren baitan sartzen da kazetarien eskubideak murrizten dituen debekua. Lege-proposamen horri segi, kazetari zein argazkilariek ezingo dituzte grabatu edota argazkitan hartu polizien eta jendarmeen gehiegikeriak. Ez da lanbide horri begira harturiko murrizketa bakarra. Manifestazioa bukatzeko manua eman bezain laster kazetariak ere beharko dituzte lekuak hustu, lege-proposamen berri horri segi.

Dokumentuak jomugan ditu casseur edo "bazter nahasleak" deitzen dituenak, hots, indarkeriaren erabilpena egiten duten manifestariak. Alta, kazetarien aurkako neurri hauekin begibistakoa da gobernuak isilean pasa nahi dituela mugimendu sozialen aurka poliziek eta jendarmeei bideratu errepresio eta bidegabekeriak. Geroz eta bortitzagoak dira manifestazioak Frantziako Estatuan eta kazetarien lanak ezinbestekoa izaten segitzen du, behar orduan bidegabekeriak plazaratzeko.

"Prensa askatasuna zangopilatzen du Barne ministroak", SNJ Kazetarien Sindikatu Nazionalaren arabera -lanbide horretako sindikatu nagusia da SNJ-. Ondokoa ohartarazten du: kazetariak independente dira, eta gobernuak ezin ditu bideratu.

Kazetaritza kontrolatzeaz gain, orokorragoa da legea eta besteak beste, LBD40 balen eta GM2M granaden erabilpena baimentzen du. Arma hauen debekua exijitzen du Amnesty Internationalek.

Lege berri honen zati bat manifestazioen esparruan egindako delituen erantzun judizialari buruzkoa da. Arazoa da aipatutako lege askok ez dituztela betetzen nazioarteko zuzenbideko legeak.

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

EZ HANKA EZ BURU

American way of life



ARITZ GALARRAGA

Ze txapa Ameriketako Estatu Batuetako hauteskondeekin, bozketa, boto kontaketa, irabazle-galtzaileekin. Ze txapa oro har Ameriketako Estatu Batuekin. Ameriketako Estatu Batuak, izena idaztea bera nekagarria zait, Vanuatu, Seychelle, Madagaskar eder, arin eta jostarien aldean. Ez naute sekula bereziki erakarri. Ea, ez da Emeterio Arresek 1913an idatzi zuen hura –“Euskal Herriko baztar maitetik yankitar hoi en aldera / zorigaiztoan etorri nintzan ez dakit zer egitera”–; baina ez dut sekula partekatu nire adinkide askok harako erakutsi duten grina. Alegia, ez nukeela sekula eskatuko New Yorkeko liburutegi publikoan bekarik –eta ondorioz, *win-win*, ez zenukete jasan beharko handik bidalitako podcastik–. Egia esan, New Yorken baino lehenago pasako nuke astebete Le-xantzü-Zunharreko Juguberrian. Eta irrikaz itxaroten dut mundu mailako hegemonia txinoek noiz eskuratutako duten.

Aldiz, oso oroitzapen ona utzi zidan Bernardo Atxagaren *Nevadako egunak* liburuak, merezi baino apalago hartu zena. Idazleak eta bere familiak Renon 2007ko abuztutik 2008ko uz-tailera egindako egonaldiaren kronika, egunerokoaren apunte segida soil gisa hasten da –Lehen eguna eskolan, Renoko erdi-gunera oinez, Joan-etorria desertura–, baina laster barreiatuko da bestelako paisaia batzuetatik, paisaia askoz ere intimoagoe-tatik. Sekula ez du galtzen, ordea, Ameriketako Estatu Batue-tako momentuko egoera soziopolitikoa begien bistatik, dela hilketa baten ondorengo izu-egoera harrapatuz, dela alderdi politiko baten hautagai-kanpaina jarraituz –tartean, Barack Obama: “Txanpon-makinen distretatik oso urruti zeuden ko-lore eta tonu haiek, eta estetika japoniar tradizionalaren ara-bera aukeratuak ziruditen, pop amerikarra ekidinez”–. Baina, ai, lagunok, hau literatura da. Eta nik, hedabideen etengabe-ko kalakaren aurrean, gero eta fede handiagoa diot literaturari. ●



ADUR

“AMERIKAKO ESTATU BATUEI HELDU ZAIE ORDUA ELKARTZEKO ETA ZAURIAK SENDATZEKO”

JOE BIDEN, AEB-ETAKO PRESIDENTE BERRIA

Alderdi Demokratikoko hautagaia izango da AEBetako 46. lehendakaria, beharrezkoa zuen 270 ordezkariaren kopurua eskuratuta. “Ohoratzen eta apalarazten nau jakiteak AEBetako jendeak niri eta Harris lehendakariorde hautatuari eman digutela konfiantza. Aurrekaririk gabeko oztopoei aurre eginez, inoiz baino iparramerikar gehiagok eman du botoa. Amerikako Estatu Batuak gara gu eta ez dago guk egin ezin dugun ezer, elkarrekin egiten badugu”. Trumpek ohartarazi du ez duela emaitza onartzen eta auzitara joko duela. **2020/11/07**



EKONOMIAREN TALAIAN

Birusa suntsitzeko... gastatu



JUAN MARI ARREGI

Munduko ekonomiaren guruek (Nazioarteko Diru Funtza, ELGA, Munduko Bankua...) baztertu egin dute osasunaren eta ekonomiaren arteko dilema, faltsua delakoan, eta lehentasuna birusa akabatzea dela onartu dute. Horretarako, munduko ekonomiak animatu dituzte borroka horretan gastatzera, BPGren gaineko zorraren ratioez arduratu gabe. Guru horiek bizkorrak dira, badakitelako ekonomiak ezin duela birusarekin funtzionatu.

Angel Gurria Ekonomiako Lankide-tza eta Garapenerako (ELGA) idazkari nagusiak adierazi duenez, "osasunaren eta ekonomiaren arteko dilema faltsua da, ez dezagun denbora gehiago galdu, baliabide guztiak erabili behar dira pandemiari aurre egiteko eta arintzeko". 2008ko krisiaren kudeaketaren esperientzia negargarriarekin, Gurriak honako hau adierazi du: "Birusari aurre egiten edo birusaren agerpenak arintzen gastatzea askoz emankorragoa, erabilgarriagoa eta merkeagoa da, pasatzen uztea baino, eta BPGren gaineko zor ratioengatik kezkatuta egotea baino".

Beraz, gobernuek, munduko erakunde horien orientabideei beti leial, orain badakite. Gaur egun, lehentasunezkoa ez da ekonomia salbatzea, baizik eta pandemiarekin amaitzeko beharrezko gastua egitea: mediku eta erizain gehiago, lehen mailako arreta hobea, medikalizatutako egoitza hobeak, osasun-produktuetan inbertitzea; koltxoi ekonomiko eta soziala lana uztera behartuta dauden langileentzat; arreta hobea ematea gizartean baztertuta daudenei eta pilatuta bizi diren migratzaile ekonomiko eta politikoei.

Bien bitartean, zorra ahaztu eta obra faraonikoen gastuak ezabatu beharko lituzkete (AHT, Donostiako metroa, Guggenheim berriak...), baita oraindik ere ezin ulertuzko moduan hazten ari diren industria militarrekin zerikusia duten gastu guztiak ere. ●

ANALISIA



DANI BLANCO

Txiroen aurkako guda

LANDER ARBELAITZ MITXELENA

Pandemiarekin batzuk gogotik aberasten ari dira. Munduko pertsonarik aberatsenek 10,2 bilioi dolarreko fortuna pilatu dute azken sei hilabeteetan. Eta aberastasuna ez denez ezerezetik sortzen, esan beharra dago geroz eta bizitza prekarioagoak dituzten langileen bizkar irabazitakoa dela dirutza hori. Eta joera azeleratzen doa. Azken zaplatzekoa Oxfamek eman du: 2020 amaierarako, COVID-19ak eragindako gosea 12.000 pertsona hiltzera irits daiteke egunean, gaitasunak berak baino gehiago.

2020ko hamarkada mugitua izatea ez da sorpresa izango. Austeritate eta politika neoliberalen aroari nola erantzungo diote gizarteek? Zer karta jokatu dute agintariek? Agintekeria autoritarioak berriro ere erakunde deslegitimazioa ekarriko al du, eta beraz, erakunde publikoen krisi politikorik aurreikusi behar da? Jakingo al du ezkerrek haserre bideratzen? Azken mendean ez dira gutxi izan giro nahasietan abiatutako gerra zikina eta gudak ere, giro aurre-iraultaileak bideratzeko balio izan zutenak.

Prekariatatea, kontratu-etenak, kaleratzeak, enpresa itxierak... Halako hizketagaiak geroz eta ohikoago bilakatzen ari dira elkarriketetan. Azkena, Jauriritzak hoztasun osoz eta inolako babesik adierazi gabe itxi du ostalaritza, ziurgabetasunean murgilaraziz milaka profesional. Noraino utziko ote dute jendea erortzen?

Bitartean, *Gararen* filtrazio bati esker jakin dugu Urkulluren gobernua sekretuan Europako Banku Zentralari (EBZ) 10.228 milioi euroko mailegua eskatzeko negoziazioetan ibili dela, batez ere AHT, Iberdrola edo Petronor laguntzeko, trantsizio ekologikoaren izenean. Zenbat PCR proba eros litezke diru horrekin? Edo zenbat arakatzaile kontratatu? Edo nola indar litezke ospitaleak, eskolak, garraio publikoa edo bulegoak dirutza horrekin? Berdin du, neoliberalismoaren ikurretako bat den EBZk diru-laguntzen baldintzetan aurretik finkatua zuen ezin zirela behar sozialetara bideratu. Dirua uzten duenak jartzen ditu baldintzak, eta gero, zorraren diktadura. Ez ahaztu inork ez duela dirurik doan ematen. Galdetu bestela zer moduzkoak diren herrialdeak desmantelatu dituzten Troikaren "beltzez jantziriko gizonak". Galdetu Greziari edo Afrikan kolonialismoa lehen kolpean garaitu ostean, kanpo zorraren bidez loturik geratu diren herrialdeei.

"Mundu mailako pandemia batean, ezin dira onartu dirua irabazteko asmoak. Jarduera ekonomikoaren soberakin guztiak larrialdi sozial eta sanitarioari aurre egiteko bideratu behar dira. COVID-zerga enpresa eta aberats handiei berehala!", bota du zorrotz ekonomia sozialaren sustatzaile Ivan Miró kataluniarrak.

Bitartean, milaka etxe huts dituen Donostian, Eneko Goia jeltzaleak pobrezian bizi ziren 100 bat pertsona aterperik gabe utzi ditu, Infernua deituriko auzoan, gehienak migratzaileak. Urkulluk etxeratze agindua ezarri eta egun gutxira. Baina lasai, etxegabeek kalean egoteko "baimena" izango dutela jakinarazi dute aurreko astean. "Ez dira etxe-kaleratzeak, txi-roen aurkako guda da", entzun da Bartzelonatik. ●



MACIEK JAZWIECKI


PROTESTEN GARAIPENA

POLONIA. Poloniako Gobernuak abortua murriztu nahi du lege berri batekin. Gobernuaren asmoek eragindako protesta oldearen ondotik, baina, legearen ezarpena atzeratu behar izan dute agintariek, bi astetako mobilizazioen ostean. Hasierako asmoen arabera, abortatzea baimendu nahi zen soilik haurdun dagoen emakumearen bizia arriskuan dagoenean, edota haurdunaldia bortxaketak edo intzestuak eragindakoa denean.

COVID-19

17 milioi

bisoi hilko ditu Danimarkak, koronabirus mutatuak zabalduko dituzten beldurrez. Gobernuak erabaki du haztegiatako bisoi guztiak hiltzea, ikerlariak ohartu direlako bisoietatik gizakietara pasatako koronabirus kasuak badirela. Kezka da gizakien eta animalien arteko birus trafikoa areagotzen baldin bada ez ote den pandemiaren bertsio are larriago bat zabalduko.



Haurren babeserako zerbitzuak kendu dizkiete Iruñeko auzo elkarteei

XABIER LETONA BITERI

UPNren ekimenez eta PSNren sostenguz, Iruñeko zortzi auzotako familien eta haurren arretara bideratutako zerbitzuak aldatzea erabaki du Iruñeko Udalak. EH Bilduk eta Geroa Baik aurka egin dute, urte luzetara lana desegingo dela salatuz.

KOMUNITATETIK COWORKIDS-ERA

Orain arte, auzoan errotutako prebentzio talde komunitarioek bideratzen dituzte zerbitzu hauek eta aurrerantzean zuzenean egingo du Udalak, oraindik ongi azaldu ez duen Coworkids izeneko zerbitzuen bidez. Udalaren esanetan, zerbitzu hori orain ez da hiri osoko auzoetara iristen eta molde berriarekin bai, eta, gainera, UPNren arabera, Udalak orain arteko zerbitzua hobetuko du.

EHUNKA LAGUNEN PROTESTA

Zerbitzu hauek, funtsean, aisialdiko eskaintzak egiten dituzte haur eta gazteentzat, arreta berezia jarritz auzoetan arazoak edo zailtasunak dituzten haurrekin eta familiekin. Sakonean, orain arteko moldeak badu zerikusi handia auzoa modu komunitarioan eraikitzearekin, bazterretan daudenak ere eraikuntza horretara batuz. Ehunka pertsona bildu zen joan den astean UPNren asmoz protesta egiteko.



ETXEBIZITZA ESKUBIDEA. Alokairuen prezioa puzteagatik zigor espedientea ireki diete Bilboko 36 higiezin-enpresari. 36 enpresak osaturiko kartel bat ikertzen ari da Lehiaren Euskal Agintaritzak, alokairuen prezioak "finkatu" eta lehiakortasunaren kontra jarduteagatik.



GENEROA OSASUNEAN. Biologikoki horretarako arrazoirik ez dagoen arren, gizonei baino sarriago diagnostikatzen zaie depresioa eta antsietatea emakumei, eta gainera preskribatutako psikofarmakoen kopurua ere nabarmen handiagoa da, EHUn ikerketa baten arabera.



HEDABIDEAK. *Independentea* euskarazko komunikabide digitala jaio da. Bertan diotenez, medioaren sustatzaileetako batzuek pandemiaren garai honetan jasotako zentsurak bultzatu ditu hedabidea sortzera. Kote Camacho, Asel Luzarraga, Pablo Sastre... daude sinatzaileen artean.

BEROKETAK ESKI-ESTAZIOA HIL DUENEAN, TURISTEN OROIGARRI HERDOILDUAK GERATU DIRA ZUTIK

1960ko eta 1970eko hamarkadetatik hona, jende zaharrenek kexuz ohartarazten zuten arren “jada ez da lehengo elurterik”, ekonomiak, modak eta are pedagogiak ere aho batez erabaki zuten eskiatzea oinarritzko eskubide bihurtu behar zela, ia obligazio. Klimaren aldaketak ez du errukirik, ordea, eta mendietan ugaritu dira erabili ezinagatik porrot egindako eski-estazioak. Boluntarioak ari dira hilotz horien hondarrak eraisten eta berrerabiltzera ez bada birziklatzera eramaten.

 PELLO ZUBIRIA KAMINO

Urri hasieran boluntario koa-drila batek eraitsi zituen Frantziako Ardeche departamentuko Sainte-Eulalie herrian abandonatuta eski-estazio txiki batek utzitako txatarrak. Mendi eta oihanean pertsonentzako bezala animalientzako arriskugarri lagatako azpiegitura zaharkituak desmuntatzen dituen Mountain Wilderness (“Mendiak basati”, itzul genezake euskaraz) elkarteko kideak ziren. Bortutik eraman zuten herdoildutako zutoin, burdinazko hari, txirrika, koadro elektriko eta abarrez osatutako 12 tona kilo burdina zahar –eskiatzaileak erakarriz mendialdea aberastu behar omen zuen eta hondakinak baizik utzi barik desagertu den ustezko negozio handiaren oroigarri tristeak–.

Frantziako Estatuan 1.500 bazkide omen dituen Mountain Wildernesseko boluntarioek 2002tik 59 eraisketa lan egin dituzte mendiak lehengoratzeko ahaleginean, batzuk Sainte-Eulalieko eski-estazioa bezalakoak, baina baita bestelako azpiegitura militar edo industrialen arrastoak ezabatuz ere.

Ardecheko mendialdeko eski-estazio honek negu oro milaka eskiatzaile erakartzen omen zituen, harik eta 2005ean ateak itxi zituen arte. Geroztik geldirik eta herdoiltzen egon da hemengo tresneria mekaniko guztia. Hala daude oraindik beste eski-estazio txiki askotakoak ere –eta gehiago egongo dira etorkizunean, ziur, klimaren aldaketaren eta estazio handien konkurren-

tziak hondoratuta–. *Reporterre* kazetan ekintzaren berri eman duten Pauline De Deus et Cédric Crocillak bildu dute azpiegitura turistiko honen desagertzeari penaz ikusi duten Sainte-Eulalieko herritarren lekukotasun nostalgiaz bete ere. Ordura arte nekazari eta abeltzainak ziren batzuek soldata finko bat edukitzeko aukera ikusi zuten 1964an eski-estazioa ireki zutenean: instalazioen mantenuan, oporretan zetozen turistentzako zerbitzu lanetan, eski ikastaroak ematen... 24 urte iraun zuen, 1998an itxi zituen ateak. 2002 eta 2005 artean Sainte-Eulalieko udalak instalazioak bere gain hartuta bigarren ahalegin bat egin zuen, baina alferrik: zorrek eta elur faltak eman zioten errematea hemengo eskiari.

Geografiako doktoretza eski-estazio txikien historiaz eta porrotaz egiten ari den Pierre-Alexandre Metral ikerlariak kontatu duenez, Frantziako Estatuan 1928tik gaur arte eski alpinoa egiteko eraiki eta martxan jarritako 584 estazioetatik jada 168 itxi dituzte, %28. 1970ean asko ugaritu ziren horien porrotak eta urterik okerreana 1992a izan omen zen. Azpiegitura txikiak ziren gehienak, asko erremonte bakarra edo bi baizik ez zituztenak; baina 2000ko hamarkadan hasi ziren erortzen estazio handi eta klasikoak ere.

Kirola, aisialdia eta turismoa sustatuz, XX. mendean zehar instituzio publikoek argudiatu zuten garapen aukera bat eskaini nahi zietela atzera geratutako men-

dialdeko zokoei, edo nekazaritza bezala industria krisian zeuzkaten eskualdeei. Metralen hitzetan, ordea, “neguko turismoan oinarritutako ekonomiak bere mugak erakutsi ditu jada, estazioek jendea bereganatzeko elkarri egindako konkurrentziak eta klimaren aldaketak eraginda. Eski-estazioen arteko gerrari etekina ateratzen diote turismo gune sendoenek baina, era berean, beste gune asko erortzen dira bidean”.

ELUR ARTIFIZIALA EZ DA DOAN

Azken hamarkadotan eskiaren negozioan gertatu den eraldaketaren gakoe-tako bat –teleski, erremonte eta gainerako azpiegiturak arauetan sartzeko berritu eta egokitu beharraz gain– elur artifizialean datza, frantsesez sektoreko profesionalak *neige de culture* eufemismoz izendatzen dutenean. Eta elur artifizialak sekulako xahuketa dakar, urarena eta... diruarena. *Basta!* aldizkariak gaiari eskainitako beste kronika batean titulatu duen moduan: “Ura eskiatzeko ala edateko? Hautatu egin beharko da”. Eskiaren industria guztia hunkitzen du dilemak, baita goi-mendietan kokatutako instalazioak ere. *Basta!*-n Barnabé Binctinek azaldu duenez, Alpeetako estazioetan 1950etik tenperaturak 1,6°C eta 2,2°C artean igo direnez, eskiatzeko eskualde mitikoa den horretako erdiak elurrik gabe geratzeko arriskuan daude.

Zerbaitengatik hasi ziren sasi-elurra fabrikatu eta zabaltzen kanoi bidez 1990eko hamarkadan. Gaur Frantziako



SAINTE-EULALIE HERRIAN

(ARDECHE, FRANTZIA)
BOLUNTARIOAK ARITU DIRA
ESKI-ESTAZIO ABANDONATUAK
MENDIAN LAGATAKO TELEAULKI
ETA BESTELAKO TRESNERIA
HERDOILDUAK ERAITSI
ETA BILTZEN. (ARGAZKIA:
MOUNTAIN WILDERNESS)

Alpeek hiriko eskiatzaileari eskaintzen dizkioten 20.000 hektareetatik 7.000k dauzkate elur kanoiak. *Haztegiko elurra* derrigorrezkoa du neguko kiroletan berezitutako edozein estaziok eskiatzaileen eskariei erantzun ahal izateko.

Alabaina, kontutan hartuz ura metatu eta ekartzea, argindarra, aire konprimatua, makinak... elur bihurtutako metro kubo bakoitza 5-7 euro kostatzen da. Hektarea bat pista elur artifizialez hornitzeko urtean 4.000 metro kubo behar dira, piszina olinpiko bete. Ahaztu barik kanoietatik elur ekoiztu berria barreiatzeko bidean, uraren %30 galtzen dela airean. Frantziako Estatuan iaz elur artifizialez kontsumitu ziren 28 milioi metro kubiko ur, eta xahuketa izugarri hori handituz doa urterik urte.

Klima aldaketa, ordea, elurteez gain euriteak ere urritzen ari dira eta ura-

ren kudeaketak mendialdeetan sortuko dituen gatazka berrien sarrerako aperitifak jadanik ezagutu dira. 2017ko neguan Alpeetan nozitutako lehortegatik, Suitzan estazioak ixtera behartuak izan ziren, lekuko agintarien erabakiz. Frantzian ez zen horrelakorik gertatu, turismo eta aisialdiaren lobbyak eragotzi zuelako. Baina aurretik, 2006ko neguan Gets herriko estazioari kanoiak erabiltzea debekatu zion bertako auzapezak, herritarren iturrien hornidura arriskuan zegoelako.

Ez pentsa elur artifizialaren beharra altuera apalean kokaturiko instalazioen kontua bakarrik denik. Europako pista-rik luzeena daukan Sarenneko estazioak bere 16 kilometroko pista hornitu ditu elur kanoiz, nahiz abiatzen den...3.300 metrotatik!

Sainte-Eulaliera estazioaren arrastoak

eraistera joandako boluntarioak mendiaren maitaleak ziren. *Rotaflexa* eskutian Nicolasek zioen: “Teleskien zutoinak suntsitzen ditud, baina eskiatzea izugarri maite dut. Eskiaren historian estazioak une jakin bateko kontua dira, nahiz eta lekuko administrazioen diruak horietan xahutu diren. Turismoa ekartzeko zela zioten, baina gezurra da. Estazioa itxita toan ikusten da, bestelako turismoa erakartzen dute hemengo naturak eta gizarteak, nahiz eta negozioa ez den hain kontzentratua eta ikusgarria”. Pierre-Alexandre Metralen iritzian, teleskiak eraistera behartutako herriok “izan daitezke mendialdeak egin dezakeen trantsizioaren lehen ereduak. Agian bihur daitezke turismo gozoago baten adibide, natura gehiago zaindu eta lekuko jendeagandik hurbilago egongo den turismo batenak”. ●

ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

f w



Mikel Idoate

PILOTA MUNDUKO GENTLEMAN ENPATIKOA



PILOTA BAZTERREKO BIHURTZEKO ARRISKUAN DAGO



Pilotari ohia eta orain telebista eta irratietako kirol esataria da. Kantxan zuen lehia garbirako grina orain enpresa alorrera eraman eta beilatoki enpresa berri bat kudeatzen du, errespetua eta pertsonen emozioak eta sentipenak erdigunean jarrita.

 REYES ILINTXETA  DANI BLANCO

Motz gelditu zen zure pilotari karrera?

Oso motz eta intentsua. 2010ean debutatu nuen profesional gisa, 20 urterekin, eta urte horretan bertan nire lehen txapela irabazi nuen bigarren mailan Titinen aurka. Hurrengo urtean buruz buruko finalean sartu nintzen. Lau urte eman nituen bete-betea lesionatu arte. 2014an mina hartu nuen ezker eskuan eta 2016an utzi nion jokatzeari.

Gainera, nire ametsa egi bihurtzen zen egunean lesionatu nintzen. Beti nahi izan dut sanferminetako torneoan jokatu eta horretarako aukera eman behar zidan partiduan, zortzigarren tantoan, Retegik pilota bat moztu zidan, ezkerrekin eman eta kristoren min arraroa sentitu nuen. Ezkerra naiz, gainera, eta dena hanpatu zitzaidan, baina profesional mailan ezin denez partida bat bertan behera utzi eskuko minarengatik, bukatu

behar izan nuen sufrimendu izugarriarekin. Hortik aurrerako bidea oso gogorra izan zen. Eskua ez zen konpontzen. Handik hiru hilabetera operatu ninduten eta sendatzen ez zela ikusita, beste medikuekin hasi nintzen Santanderren eta gero Madrilen. Horrela bi urte ibili nintzen. Saiatu nintzen berriz jokatzeko baina ezin zenez, 2016an erretiratzea erabaki nuen. San Fermin egunean egin zidaten Labrit frontoian omenaldi hunkigarria eta hori izan zen zirkulua ixtea, nonbait.

Enpresa, Asergarce zen orain Baiko dena, oso ongi portatu zen nirekin. Medikuek guztiak ordaindu zizkidaten, laguntza izugarria eman zidaten eta gaizki pasa nuen erresoluzio kontratua sinatu nuenean, baina hurrengo egunean ongi nengoen, nire ametsa bete nuela sentitzen nuelako. Pilota ongi utzi nahi nuen eta, gainera, banekien bizitza pilota baino gehiago zela.

Txikitatik pilota afiziorik izan duzu?

Ikaragarria. Haurtzaindegira bi pala txiki eta pilota batekin joaten nintzen: bat niretzat eta bestea nor engainatzen nuen ikusteko. Ruben Beloki zen nire idoloa haur garaian. Osasuna futbol taldea bigarren mailan zegoen eta haur guztiak pilotan ibiltzen ginen.

Pilota profesionalaren oraingo egoeraz zer pentsatzen duzu?

Greban egon diren pilotariak arrazoiak zituzten horretarako. Oraingoan hitzarmen batera iritsi dira eta hori da garrantzitsuena pilota salbatuko bada. Pilota ez da futbola. Pilota kirol txikia da, bertakoa eta bere etorkizuna arrisku handian dago plan estrategiko bat egiten ez badugu.

Negoziaketa batean nik beti eskatzen dut bestearen tokian jartzea, ideia berrienetara irekita egotea eta enpatia

Mikel Idoate Rey

IRUÑEA, 1989



Pilotari ohi txantrearra. Lau urtez profesional gisan aritu ondoren, jokatzeari utzi behar izan zion eskuan izandako lesio batengatik. ETBko *Kantxa* saioko esataria da duela urtebete, eta kolaboratzailea ere *Euskalerria Irratia*, *Antena 3* eta *SER* irratiako kirol saioretan. Zuzenbidean graduatu zen eta pilota utziz geroztik Izarra beilatokiak enpresaren sorreran parte hartu zuen eta egun kudeatzailea da.

handia izatea. Argi eduki behar da, bestalde, hitz egiten den guztia ez dela beti publiko egin behar.

Iruditzen zait egoera oso enkistatua egon dela eta zaila dela negoziatzea, horregatik Ezkurdia, Altuna, Olaizola eta Urrutikoetxeak laguntzeko egin duten elkartea oso garrantzitsua da. Ia pilotari guztiek eman diote babesa gainera. Okerra litzateke detailetan geldituko balira. Halakoe-tan beti hautsak harrotzen dira eta errazena da gauza txarrak ikustea, baina uste dut gauzarik onena egin dutela eta meritu itzela dutela, beren ize-na eta ibilbideak publikoaren aurrean arriskuan jarrita. Pilotak elkarte bat behar du eta intentzioa ona da. Aldagelan egon naiz haiekin guztiekin eta ezagutzen ditut.

Elkarte bat zertarako?

Kirol guztietan badira halakoak. Kirolean, eta pilotan, batez ere, kontu handia izan behar dugu hiztegiarekin. Soldata duinaz hitz egiten denean, adibidez. Pilotari debutatu berriek soldata txikiak dituzte, baina egia da gero hobetu egiten direla.

Elkartea beharrezkoa da pilotari gazteei etorkizun bat bermatzeko eta jokalaria guztien eskubideak defenditzeko. Enpresei eta EPELi (Eskuzko Pilota Enpresen Liga) kontrapisua egin behar zaio. Gu elkarte bat egiten saiatu ginen 2012an baina ez genuen lortu. Beste saiakera batzuk ere izan dira eta ez dira aurrera atera. Beraz, hau une historikoa da, oso ona eta garrantzitsua pilotarentzat.

Hil ala biziko egoeran dago pilota?

Ez dut uste. Pilotan jokatzen jarraituko da, baina Juan Ignacio Zulaika zesta-punta jokalaria izandakoak duela gutxi elkarriketa batean zioen bezala, pilotak bizitzen jarraituko du, baina bazterreko bihurtzeko arriskuan dago. Pilotariak motibo asko izan dute grebarako? Bai. Eta enpresek arrazoi parte bat izan dute? Seguru baietz. Pilotariak ez ziren ados baldintza batzuekin, entrenamendu tokiak, tratua... deseroso sentitzen ziren. Gero soldaten %20 jaistea iritsi zen eta lehertu zen, baina lehenagotik zetozen dena. Eta txarrena da guztia

mediatiko bihurtzen denean. Ura bota beharrean, gasolina.

Errespetu osoz diot. Kanpotik jende askok morbo handiarekin ikusten du eta jakin gabe gauza asko esaten ditu, baina mundu hau ezagutzen dugunok badakigu zenbat sufrimendu pertsonal egon den alde guztietan: pilotariak, enpresariak, kazetariak... Jende hori triste ikustea oso gogorra da. Hitzarmena eta elkartearen sorrera oso berri onak izan dira.

Interes dema?

Egoak, interesak, eta dena aurkezten ari da garaile eta galtzaileen arteko lehia balitz bezala eta negoziaketa batean, azkenean eman behar den itxura bada denek zerbait irabazi dutela. Elkarren beharra dute eta horregatik konponbide globala behar da, bi partentzat onuragarria.

Pilota-zaletasuna behera doa?

Ez. Konfinamendua baino lehenago pilota zegoen gori-gorian. Duela 20 urte baino ikusle gutxiago dago frontoietan, agian bai, baina aurtengo binakako eta lau t'erdiko txapelketen finalek inoizko audientziarik handienak izan dituzte. Ni urrian hasi nintzen ETBn eta bi-hiru larunbatetan ikusle kopuru marka guztiak gainditu ziren.

Eta harrobia nola dago?

Orain okerrago. Hori bai dela pilotaren egiturazko arazoa. Nire txikitako garaian jende piloak jokatzen genuen eta orain ez. Pilota federazioko lizentziak gutxiago dira, kirol eta entretenimendu gehiago dago eta pilota zaindu beharra dago. Talentua erakartzeko eta harrobia sustatzeko plan estrategiko orokor bat egin beharko litzateke. Klubek lan dezente egiten dute, baina pilota federazioak egin beharko luke gehiago, Nafarroan behintzat huts egin du azken urte hauetan. EPELe protagonismo gehiago hartu beharko luke pilota promozionatzeko, futbolekin Ligak egin duen bezala. Hori da hemendik aurrera egin behar dena, hondoa jo nahi ez badugu.

Esatari lanetan gustura?

Oso gustura. 2016ko abenduan hasi



nintzen gaztelaniaz, Juan Carlos Gonzalezekin. Joan den urrian ETBtik deitu zidaten, aldaketa bat egin nahi zutela *Kantxa* saioan eta Abel Barriolarekin aritzen naiz.

Euskaraz egitea niretzako erronka bat zen. Txikitatik hitz egiten dut euskaraz baina nire ama hizkuntza gaztelera da. Beraz, hasi nintzen berriro euskara ikasten, liburuak irakurtzen eta nire osaba Fernando Rey idazle eta itzultzailearekin, gauza batzuk zuzentzen. Niretzat pilotarekin harremanetan jarraitu ahal izatea opari bat da. Ni pozik nago. Euskalerrria Irratian ere aritzen naiz kirol saio bat egiten, ez soilik kirolarengatik, baizik eta Iruñerriko euskaldunontzat irratia hau den guztiarengatik. Ni han kolaboratzeko beti prest.

Kantxatik beilatokirako aldaketa nolakoa izan zen?

Enpresa mundua betidanik gustatu izan zait eta Zuzenbidea ikasi nuen amakesan zidalako hori ikasteak denetarako balio duela eta. Mikel Legarra ezagutzen nuen eta berak Izarra zabaldu behar zuela jakin nuenean elkarrekin hasi ginen lanean. Bera da Nafarroan

honetaz gehien dakien pertsona. Argi ikusten genuen heriotzaren munduan gauzak aldatu behar zirela. Multinazionalak sartu dira hemengo lehenagoko enpresak erosiz eta guk, aldiz, hemen errotutako enpresa bat egin nahi genuen, gainera zerbitzu ezberdina emanago zuena. Hurbilagoa eta humanoagoa. Pertsonalizatuta: jendeak bere senitartekoa edo laguna nahi duen bezala agurtu behar du eta guk horretan laguntza eman nahi diogu. Horretan garrantzia handia du hizkuntzak eta horregatik gure zerbitzu guztiak euskaraz eta gaztelaniaz eskaintzen ditugu. Gure langile guztiak elebidunak dira. Hemengo kultura, ohiturak eta noski, hizkuntzak errespetatu nahi ditugu eta horregatik jartzen ditugu bi hizkuntzak parez pare.

Toki fisikoaz gain, zer eskaintzen duzue?

Tanatorio txikiagoak egiten ditugu herri edo hiriaren erdian, ez industriagune edo kanpoaldean, uste dugulako pertsonak bizi izan diren tokian agurtu behar direla. Eskaintzen duguna da tratu, hurbiltasuna. Eroso sentitzeko eta nahi duen moduan bere senitartekoa

agurtzeko aukera. Batzuetan haiek ere ez dakite nola nahi duten egin eta horretan laguntzen diegu.

Sentimendu asko daude une horietan eta horiek partekatzea sustatu nahi dugu. “Ez egin negar”, entzuten da askotan, baina guk zera diogu, “negar egin nahi baduzu egin negar eta irri egin nahi baduzu egin irri”. Hori askotan gertatzen da, dolua halakoa delako. Une batean negarrez zaude hunkituta eta hurrengoan irriz ez dakit zer gogoratzen duzulako. Sentimenduak adieraztea ona da, agurraren parte garrantzitsua da eta guk hori defendatzen dugu. Fundazio bat dugu eta toki askotan gai hauen inguruko hitzaldiak ematen ditugu.

Ingurua eta giroa ere oso garrantzitsuak dira. Hemen dena argitsua da, txuria, ez dago marmolik ez errezel itsusirik eta jendeak espazioa dekoratu dezake nahi duen bezala. Batzuk apaindu dute hau hildakoaren etxeko egongela balitz bezala. Hori bai dela agur polita. Nolako agurra, halako dolua diote psikologoei.

Kontzeptua aldatu dugu: zaindu beharrean, haren ondoan egotea eskaini nahi diogu jendeari.

Pandemian une larririk izan duzue?

Hau tragedia izan da. Estatu osorako erabakiak hartu zituzten Madrilgo egoeraren arabera. Beilatoki guztiak hila eta erdiz itxita egon ziren eta gu horren kontra azaldu ginen uste genuelako tokian tokiko kudeaketa egin behar zela. Jende askok ezin izan zuen bere senidea agurtu, COVID-19 arengatik hil ala ez, eta hori oso gogorra da.

Gurea ofizioa da, ez lanbidea, eta egoera hori eramangarriagoa egiteko agurtzeko beste modu bat asmatu genuen: fisikoki ezin bada agurtu, behintzat familiak sentsazioa izan dezala hildakoarekin han egon dela. Familiei aukera eman genien argazkiak, eskutitzak, musika... nahi zutena bidaltzeko. Hori dena jartzen genuen zenduaren aldamenean eta bideo polit bat grabatu eta bidaltzen genien senideei. Horrela sentitzen zuten, nolabait, berarekin egonak zirela une horietan. Jendeak izugarri eskertu du.

Neurritz kanpoko lana izatera iritsi zineten?

Egon ziren hamar egun apirilean bereziki gogorrak, baina lan taldeak erantzukizun handiz jokatu zuen eta Nafarroan

ditugun hamar beilatokietan arazorik ez genuen izan.

Tanatorioa eta beilatokia gauza bera da?

Ez. Tanatorioan baltsamatu daitezke gorpuak eta beilatokian ez. Baltsamazioa egiten da 72 ordu baino gehiago kontserbatu behar duzunean gorpu bat, lekualdaketa bat egiteko, adibidez. Herri txikietan beilatokia zabaltzea errazagoa da. Hala ere guk denei tanatorio deitzen diegu.

Zuen kotxeak zuriak dira, beilatokian dena oso argitsua da... honek guztiak tabua apurtzeko balio du?

Hori uste dugu. Detaile bat: tanatorioa toki atsegina da eta haurrak etortzen direnean ikusten duzu nola bizi duten heriotza oso modu normalean. Helduak gara buelta gehiago ematen diogunak. Naturaltasunez landu nahi ditugu, eta onartu emozio eta pentsamendu guztiak naturalak direla eta haiekin bizitzen ikasi behar dugula.

Ona da heriotzan pentsatzea?

Bai, jakina, eta denok pentsatzen dugu nahitaez. Garrantzitsua litzateke he-

riotzan eta doluan formatzea. Eskutik doaz biak eta harreman natural bat izan behar dugu haiekin.

Zer dago hil ondoren?

Nik ez dakit. Dakienak esan dezala. Ni horretan ez naiz sartuko. Errespetu osoz saiatzen naiz hitz egiten beti, pilotan bezala. Nire iritzia ez dut eman behar bartzuk uste dutelako haiek bezala ez baduzu pentsatzen haien kontra zaudela, eta ez da horrela. Guk dena errespetatzen dugu: norberak nahi duen bezala bizi dadila eta agur dezala.

Izan ere hona sinesmen desberdinak dituzten pertsonak etortzen dira, Maroko aldeko edo Senegalgo musulmanak, errumaniarrak, ukrainiarrak... bakoitzak bere ohiturak eta erritoak ditu eta guk guztiei behar dituzten baliabideak eskaintzen dizkiegu.

Ofizio honek lagundu dit heriotzarekin harreman hobea izaten. Zer den ulertzeko eta pertsona bezala hobetzeko balio izan dit. Egunerokoan tontakeriak alde batera uzten ikasten duzu hemen. Beste modu batez bizitzen. Orain gehiago errespetatzen ditut pertsona bakoitzaren pentsamoldea eta iritziak. Pilotan bezala, heriotzan ere beti errespetuz. ●

EZAGUTZA DA TXERTOIA

Aurten, bi sari Zientzia Gizartean sorkuntza-bekaren kategorian!

Oinarriak:

cafelhuyarsariak.elhuyar.eus

Lanak bidaltzeko azken eguna:

2021eko otsailaren 12a

Kontakturako helbide elektronikoa:

cafelhuyarsariak@elhuyar.eus



ANTOLATZAILEAK

CAF

elhuyar
ezagutuz aldatzea

BABESLEAK

NEIKER

MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

ELKARTEA
ELKARTEA
ELKARTEA

ELKARTEA
ELKARTEA
ELKARTEA



Ametsen heriotza eta utopien pizkundea



KARMELO LANDA
HISTORIALARIA

Joan zen uda eta negua heldu da. Horrela sentitu dugu askok egunotan, azaroa heltzearekin batera, arazoa erraldoi bihurtzen ari baitzaigu. Iragarri zuen Gabriel Arestik negu gorriaren etorrera, eta egun buru gainera abaildu zaigu pisutsu, berunezko presente honetan, poeta-profeta bilbotarraren sententzia.

Kazetaritza bikainaren egitekoa da, nonbait, errealtate biluzia herritarron begien aurrera aurkeztea, eta bere horretan praktikatzeko du ofizioa José Mari Pastor kazetarien maisuak. *Aresti ametsen hilerrian* artikulua zorrotza eskaini zigun lehengunean *Berria*-n. “Non dago Euskal Herri askatu eta sozialistaren ametsa?”, galdetzen zigun hildakoen egunaren bezperan, hilerriak bisitatze-ko sasoian, galderan bertan erantzun inplizitua iragarritz.

Galdera modu zabalagoan ere plaza daiteke: non dago Euskal Herria? Hildako ametsa da ala gauzatzeko dagoen utopia?

Euskal Herria, “herri nahi eta ezina”, zioen Gandiagak. Kontua da “ezina ekin ezina” goiburu hartuta saiatu dela gure aurretik belaunaldi osoa, eta herri zigortua ia ezabatuta zegoen zulo beltz hartan, nazio proiektu osatua diseinatu zuen. Belaunaldi horretako partaide zen, bai, Gabriel Aresti, baina harekin batera Joxe Azurmendi edota Koldo Mitxelena zein Txillardegi, era aipagarrian. Arestik nazio zaharberritu baterako etika soziala eta estetika liberatu moderno-

Euskal Herria
erakunde politiko
demokratikoaren utopia
hortxe dugu, guztion
begien aurrean, baina
etxegile zintzoak eta
eraikuntza material
egokia behar ditugu

tua ekarri zituen; Joxe Azurmendik, bere aldetik, euskal etxearen oinarri filosofiko eta teoriko-politiko sakonak; Mitxelena kultur sistema propioaren orube den hizkuntzaren arkitektura. Txillardegi aurreko atal guztiak elkarlotu eta pragmatikara ekartzeko lehen ahalegin serioa.

Euskal Herriaren nazio-antolaketan demokratikoa, edo horren diseinu zehaztua, guztion begien aurrean jarri zuten. Ez zegoen, orduan, etxearen diseinu orokorraren inguruko zalantzarik. Argi esan digu Joxe Azurmendik berak Aresti eta biak zertan ari ziren: “Sozialismorako bide euskaldun bat, hori zen gure ametsa orduan”.

Hor zegoen, beraz, diseinu argia. Zer gertatu da ondoren? Arkitektoek ez zuten huts egin, baina etxegileek bai. Alde batetik, planoak gaizki interpretatu di-

tuztelako: nazio propioa eraiki nahi duzunean, ezin zara beste mega-nazio baten azpian eraikitzen saiatu, eta gainera besteen etxe barruan maizter izatea ontzat ematen duzunean, jabea zaren plantak egiten ibili. Bestalde, Orwell-en *Animal farm* ezagunean gertatzen zen moduan, nagusien etxaldean bizitzetik, nagusien moduak eta antza hartzen amaitzen duzulako; nagusien ukuiluan ematen duzu denbora gehiago, hango arazoez “parlamentatzen” eta adosten, bertoko ortuak lantzen baino.

Parabola orwelliar hori etorri ziztzaidan gogora lehengunean, Madrilgo kongresu hartako eztabaidan Pablo Iglesiasi, zuzenean, hauxe aditu nionean: “Guztiok dakizue ni errepublika zalea naizela, baina orain, gobernu honetako presidente-ordea naizenez, monarkiari errespetua exijitu behar dizuet”. Horrek laburbiltzen du parabola osoa.

Euskal Herria erakunde politiko demokratikoaren utopia hortxe dugu, guztion begien aurrean, baina etxegile zintzoak eta eraikuntza material egokia behar ditugu. Une honetan ez dugu trazatu oraindik plangintza estrategiko zehatzik obra horretarako, etxearen orubea euskara dela ez dugu aitortu nahi; eraikuntzaren dimentsioak ez ditugu Euskal Herriaren dimentsio osoarekin bateratu; eraikuntza-epeak ez ditugu zehaztu. Ezinbesteko tresnak (komunikabide-sare propioa, unibertsitate beregaina...) falta zaizkigu. Horrela gabiltza oraindik. *Ez gara hain onak benetan.* ●

Irabazi ala galdu, Trump adierazle, eredu eta ikono



SONIA GONZÁLEZ
IDAZLEA ETA ABAR



ANTTON OLARIAGA

Nire ingelesa hobetu behar nuela eta pelikula jatorrizko bertsioan ikustea nahikoa ez zelakoan, egun batean ekin nion zer eta Trumpen *speech*-ak entzuteari. Bai, badakit, nire “frikitasunak” ez bide dauka mugarik. Mugatuta, egon, gizon horren berbaera erraz eta txiroa dago. *Listen and repeat* egokiak, beraz. Ze momentutan! Ze momentutan hasi nintzen hauteskundee-tara arteko bidaia zoragarri horretan, zoragarri hitzaren esanahi eroanean, noski.

Hau idazten ari naizen momentuan oraindik ez dakigu zer ote den gertatuko: Trumpek galdu ala irabazi. Biden tangenziala da. Eta, jakina, ez dakigu zer gertatuko ote den Trumpek galduz gero, onartuko duen ala ez, nora arte asaldatu duen giroa, xaxatu dituen gizon armatuen taldeak matxinatuko ote diren... Txakur zaunkariegia, seguruenik. Beste lau urtez agintean egotea arrisku-tsua izanagatik ere, muturreko posizio horiek sustatu eta indartu izanak du garrantzia, hala ere.

Trump faxismo berriaren adierazle nagusia da. Badira, izan dira eta izango dira bere antzekoak, baina kasu honetan Amerikako Estatu Batuetako presidenteaz ari gara, horrek daukan esanahi

guztiarekin. Eta, Trump sortzailea ez bada ere, Europa ere jotzen ari den mugimendu oso batek eredu eta ikonoa topatu du berarengan.

Morroi aproposa izan zen presidentziara bideratzeko lehen momentutik. *Self-made man*-a guztiz, baina terminoari askok ematen dioten esfortzu konnotazioetatik urrun, bizi osoa bere burua fabrikatzen eman duena. Abortuaren alde egotetik, kontra jartzera; demokratei diru askoz gehiago ematek, alderdi errepublikarretik aurkeztera... Ez pentsa printzipio sendorik ez daukanik: gizon zuri aberats moduan duen edozein bote eta pribilegio dira bere printzipio sutuak.

Morroi aproposa izakeraz: megalomano eta soziopata, nartzisista eta lotsabakoa, burutik pasatzen zaion edozer esateko kapaza, bere gaitasunik ezaz harro. Halaxe bihurtu da ikono. Ikusi besterik ez dago Alemanian eta Europako beste bazter batzuetan Trumpen irudi eta leloen peko manifestariak.

Eredu, moduetan inork baino hobeto asmatu duelako. Izan ere, mugimendu honen funtsak ez dira albiste: ultranazionalismoa, arrazakeria eta matxismoa; itzelezko polarizazio soziala eta koplak-buruko errudunak; harropuzkeria eta

oilarkeria... baina bai da berria XXI. mendeko koiuntura historiko-sozial honetan kartak jokatzeko era: zelan erabili orain *fake news* deitzen diren betiko gezurrak, zelan erabili sare sozialak, zelan erabili kontsentsu sozial funtsezkoenak erreallitate bihurritzeko eta itxuraldatzeko. Mezu eta helburu zaharrak, modu eta bitarteko berriak.

Eredu politikotzat hartu dute baita Espainiako Estatuan ere. Hala, esaterako, zentsura mozioan, Voxen propaganda momenturik garrantzitsuena izan behar zen hartan, Trumpen diskurtsoa izan zen kongresuan oihartzuna utzi zuena. Berezkotasun frankista eta *kañi*-ekin, baina kopia nahiko fidela. Mugimendua dira, isolatuta baino, elkarrekin harremanetan daudelako. Eta hurrengo baterako utzi beharko dugu Voxek osatu nahi duen Iberosfera delakoa.

Mundua zeharkatzen duen uholde faxista berri bat, posible izateaz gain, martxan ere badago, indar politiko, ekonomiko eta sozial handia lagun. Suposatzen dut duela mende bat halaxe gertatu zela: han-hemenka sortzen, zabaltzen, indartzen ari zela agerikoa izan arren, inork gutxik nahi zuen sinistu edo, behintzat, ez zuen ondorio horren larri-rik aurreikusi. ●



IMANOL ALVAREZ
IRAKASLE OHIA

Erabilera, norberarengandik hasita

Urteak dira behin eta berriro entzuten dudala ezagutza ez dela aski eta erabilerarako jauzia eman behar dutela gure gazteek. Ados. Egia da gaurko gazte gehienek euren egunerokoan erdarara jotzen dutela gero eta maizago, baita orain gutxi arte euskararen gotorlekutzat hartu izan diren eremuetan ere. Zioak, asko eta askotariakoak. Alde batetik, argi dago gazteek euren sortu behar dutela erabili beharreko mintzaira, inondik inora goitik inposaturikoa ezin dena izan. Bestetik, mendetako egoera diglosikoa dugu, globalizazioak hamaika aldiz biderkatua.

Umeen erreferente nagusiak beti izan dira –eta badira– gurasoak eta, eskolartze-unetik aurrera, maisu-andereñoak. Telebista ere bada nolabaiteko erreferentea, ETBk rol garrantzitsua jokatu duela euskarazko marrazki bizidunak eskainiz. Egun, ordea, ehunka telebista daude, eta euskaraz bakarra eta kaskarra, zeinak, gainera, gero eta haurrentzako saio gutxiago ekoizten dituen. Euskara, hortaz, erabat urtuta gelditzen da erdal itsasoan, kalean bezala baita telebistan ere.

Gaztaroan, gurasoek eta eskolak erreferente izateari uzten diote, eta kanpoan bilatzen dira ereduak: kirolariak, artistak... Ez ahazteko moduko beste kontu bat da gazteak mugatu ohi direla bes-

teek bezala jokatzera, oso taldekoiak baitira. Egoera horretan, oso zaila da portaera-aldaketak kanpotik eragitea. Nik ere ez dakit nola lor litekeen, baina badakit nola seguru ezetz.

Ziur aski, dituzten kanpoko erreferente horietako batzuk, gutxi asko, euskaldunak izango dira, futbolariak edo musikariak kasu. Bada, oso eragin positiboa litzateke normalean euren medioetan euskara erabiltzea. Borondate-falta nabaria da sarri. ETBk ez du laguntzen, erdaraz ere egitera behartzen baikaitu euskaldunok.

Behin, salatu nuen hemen euskal politikari gehienek utzikeria: ia dena erdaraz idatzi, eta gero beste norbaitek euskaratu. Esan bezala, zorigaitzez, utzikeria bera agerikoa da esparru guztietako profesionalengan ere. Esaterako, zinemetan bi euskarazko film egon berri dira ikusgai. Bada, batean, kredituak erdara hutsez. Ulertezina. Onartezina. Bietan, pertsonaiek euskaraz hitz egiten dutenean, erdarazko azpituak; baina ez alderantziz. Hegoaldean, euskaldun gehien-gehienok gaztelania ere ulertzen dugu, Iparraldean frantsesa bezala; ezin uka, berriz, mezu erabat etsigarria gortzen dutela.

Erabilera, bai: norberarengandik hasita. ●



CASTILLO SUÁREZ
IDAZLEA

Galdutako ohiturez

Claudio Magrisen *Mugak* saiakera laburra berriz irakurtzen ari nintzela topo egin dut haren profezia batekin: “Gure etorkizunean mamu baten itzala ageri da: hainbat eta hainbat gizon-emakumek, oinazeak eta goseak akuilatuta, beren sustraiak, beren mugak bertan utzi eta beste herrietara alde egingo dute, gorrotoa eta beldurra sortaraziz, eta ondorioz hesi gehiago altxaraziko dira (...) halakoa izango da, etorkizun hurbilean, Europaren existentzia edo haren duintasuna behintzat”.

1995ean argitaratu ziren Magrisen arestiko hitzok, Koldo Biguriren itzul-

penari esker. Jaioterriko *frontiera*-tik ari zaigu testuan Triesteko idazlea, eta, bidenabar, Europako fronte(r)ez. Gutako inor gutxi i(r)a garriko zuen Berlingo Harresia *erorarazi* zen lekuan beste zenbait eraikiko zirela hurrengo hamarkadetan. Datuak, baina, ez gaitu toki onean uzten: hamaika murru omen zeuden zutik Berlingoaren ondotik; 70 baino gehiago omen daude egun. Hauteskundeek ere erretratatzeko gaituzte han eta hemen.

Nietzscheren galdera batekin bukatu zuen saiakera Magrisek: “Non senti naiten teke etxean?”. ●

Ezker/eskuin?



GORKA MORENO MÁRQUEZ
EHU-KO IRAKASLEA

Aspaldiko partez zenbait gizarte dinamikak ezbaian jarri dituzte errealitatea aztertze erabili diren kategorioa ideologiko zein analitikoak, eta hauen artean ezker/eskuin dikotomia ere badagoela iruditzen zait.

Ezker eta eskuinaren bozkatzaileren arteko mugak batzuetan ez dira lehen bezain nabarmenak eta ultraeskuinaren barruan langileen hainbat boto dauka, lehen ezkerreko botoa eman zezaketanak. Hainbat mobilizazioetan ere, nahasketa hauek agerikoak izaten ari dira. Frantziako Jaka Horien kasuan, aldarrikapen bateratua egon zitekeen arren –globalizazio neoliberalaren aurkako leloak–, gerturapena, aldiz, ezker zein eskuinetik egin zen, mobilizazio hauetan ultraeskuineko mugimenduen zein antikapitalistek bat egin zutelarik.

Antzeko gauza gertatzen ari da hainbat lurraldetan, azken asteetan koronabirusari aurre egiteko administrazio publiko ezberdinek hartu dituzten neurrien aurkako mobilizazioetan. Egia da ez dagoela argi ze talde diren liskarrak

Egia da ez dagoela argi ze talde diren liskarrak sortzen ari direnak, baina komunikabide batzuek azpimarratu dute ultraeskuina zein talde antisistemak daudela

sortzen ari direnak, baina komunikabide batzuek azpimarratu dute ultraeskuina zein antisistema talde antisistemak daudela. Ikuspuntu ezberdinez, baina arerio komun baten kontra: esku-bideen murrizketak.

Momentu honetara ailegatuta, talde hauek batzen dituen arerio hori mahai gainean jarri behar dela iruditzen zait: globalizazioak sortu dituen ezberdintasun ekonomikoak, espektatiba eza,

politikaren desprestigioa... Elementu hauek guztiak nolabaiteko XXI. mendeko *Pancho Villaren armada* sortu dute, non gero eta askotariko kolektibo eta jende gehiago dagoen, baina batzuetan argi jakin gabe nola definitu taldea, batzuek ezkerrean kokatzen dute eta beste batzuek eskuinean.

Agian koordenada berriak behar ditugu errealitatea aztertze. Ez da izango ezker eta eskuin kontzeptuen ezabapena, baina gaurkotu behar ditugu, eta sortu diren dinamika hauen aurrean kategorio analitiko berriak barneratu beharko ditugu halaberrez, nire us-tez.

Beste era batera esanda, eta Slavoj Žižek-en hitzak kopiatuz, akaso oker begiratzen ari gara eta giltzak galdu diren lekuan bilatu beharrean, argia ikusten dugun tokian bilatzen ditugu... Alegia, eta neure hitzekin esanda, errealitatea aztertze genituen betaurreko zaharrekin jarraitzen dugu eta errealitatea betaurreko horietara egokitzen saiatzen gara, eta ez alderantziz. ●

MARCOS
okindegia

**Benetako
antzinako ogia**

© 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)



**EKONOMIA SOZIAL
ETA ERALDATZAILEAREN
BIDEAN DOAZENEN
AHOLKULARITZA**

aholku@aholku.eus · 943 005 680
aholku.eus

2021a urteurren borobil ugarirekin dator: 500 urte Noaingo batailak, 150 urte Parisko Komunak, 100 urte Sobietar Batasunak M8 emakumearen egun izendatu zuela, 25 urte Itoiz urtegiko kableak moztu zituztela edo Hondarribiko alardean emakumeak lehen aldiz atera zirela, 20 urte Al Qaeda AEBetako Dorre Bikien aurkako atentatuarekin mundua aho bete hortz utzi zuela.

Aurtengo formula baliatuz, **egunero efemeride bat** eskainiko dizugu datorren urtean ere, burujabeak garenez, historia guk ere idatz dezagun.

AZOKA.ARGIA.EUS

943 37 15 45



4€ BIDALKETA GASTUAK



ARGIA EGUTEGIA

Eskuratu



Gaiari heltzeko astelehen proposa suertatu da azaroaren 2ko hitzordua. Aurreko asteburuan murrizketa neurrien aurka deitzaile jakinik gabeko mobilizazio komunikatu gabeak izan dira Hego Euskal Herrian, eta Er-tzaintzak hamabost pertsona atxilotu eta 35 identifikatu ditu istilu txikietan –bestelako mobilizazioak ere izan dira, jendetsuagoak, baina “negazionisten” edukiontzia erreteara mugatu da hedabide gehien arreta, baita Urkulluren mingaina ere: “terrorismoa da”, ebatzi du-. Igandean *Independentea* izeneko euskarazko hedabide digitala jaio da, aurkezpen testuan irakurri daitekeenez “zentsuratu zaizkigun ikuspegi horiek”

argitaratzea helburu, eta *Berria*-ri aipamen zuzena eginaz. Horiek denek mezu gurutzatu oldarkor ugari sortu dute, bereziki, nola ez, sare sozialetan. Baina giro zaputza aurretik dator.

NEGAZIONISMOA ETA KRITIKOTASUNA

Olatz Barrenetxea Larrondo psikologoak jendearen ezinegonaren termometro zuzena du bere kontsultan, eta aurreko konfinamenduan osasun arloko profesionalen zaintza psikologikoan aritu zen, besteak beste. Asteburuko protestei interesez begiratu zien lehenbizi eta mesfidatiago gero. Baina azalpenen jarri du arreta: “Inpotentzia, segurtasun-gabezia eta frustrazio asko dago, ateratzeko mo-

dua da. Hori ere behar da, baina eskuinak aprobetxa dezake”.

Ugo Mayor Martínez EHuko Biokimika saileko irakaslea eta Ikerbasqueko ikerlaria da. PCR probak egiteko EHuren ekimena koordinatu zuen martxoan, Espainiako Osasun Ministerioak balidatu zuena. Egun koronabirusarekin erlazio-natutako beste hiru proiektutan murgilduta dago. Agintariei leporatu die negazionismoa eta teoria konspiratzaileak indargabetzeko ezer ez egitea: “Denok dakigu badagoela jendartearen zati bat jarrera horietan. Inongo azalpenik edo pedagogiarik ez, eta lehen aipamenak kontainerrek erre direnean egin dituzte agintariak. Ez al dago interlokuziorik ez baduzu kontainerrik erretzen?”. Hain



zuzen ere, bere ustez teoria horien zabalpenerako ongarri nagusietakoa dira agintarien eta botere ekonomikoen iruzurrak eta gardentasun eza.

Baina nor dira “negazionistak”? Mati Iturralde Martínez de Lizardui lehen arretako medikua da, eta bere herriko zahar etxean ere aritzen da. Ezkerraren ahulezian jarri du begirada. “Negazionismoan sartu da *terraplanistetatik* esaten duenera: ‘beno, igual ez da hainbestetarako, ezta?’. Nahasmen horretan, ezkerretik ez bada azalpen on bat ematen, ez badira beste bide batzuk jorratzen, disidentzian kaosa sortzen da”. PP, EAJ edo PSOEren “eskuineko” mezuari ezkerreko bat kontrajarri ohi zaiola dio, baina orain “oreka” hori ez dagoela uste du,

Bigarren olatua COVID-19AREN, SUMISIOAREN ETA ERASO KAPITALISTAREN BIRUSEI AURRE EGIN

Agintariek inposatzen dutena otzan onartu; ala “negazionismoaren” lerroetara batu. Herritar kritiko gehienak, ordea, bi mutur horien artean kokatzen dira. Ezkerrean, osasun krisiaz eta bere kudeaketaz eztabaida falta, eta dagoena sinpletua eta polarizatua dagoela ikusten dute Ugo Mayor biologoak, Olatz Barrenetxea psikologoak eta Mati Iturralde lehen arretako medikuak. Espazio zabal hori indartu eta elikatzeko urgentzia partekatzen dute. Pentsamendu kritikoen arteko eztabaida eraikitzailea nahi lukete, bizitzak salbatzeko ez ezik, bizitza bizigarriak eraikitzeko erronka gure eskuetan hartzeko.

 ZIGOR OLEAGA  DANI BLANCO

“jende askok ez du ikusten bere burua ordezkatuta egungo espektroan”.

“Froga gisa pertsona batzuen adierazpen isolatuak hartuta, murrizketa autoritarioen aurka dauden kontrako leporatzeak orokortzen dira”, denek birusa ez dela existitzen edo plan ezkutu baten parte dela esango balute bezala. Ezkerra negazionisten eta konspiratzaileen zakua arinkieraz erabiltzen ari dela diote José R. Loayssa lehen arretako mediku nafarrak eta Ariel Petruccelli unibertsitateko historia irakasle argentinarrak *El Salto*-n. Kontrako norabidean ere egiten da antzekorik: neurri murriztaile jakin batzuen alde agertzen direnak gobernariaren lerroetan kokatu, alegia. Jarrera horiekin, posizio kritiko askotariko horiek ez onartuz eta elikatuz, ez al zaio ezkerra negazionismoari eta eskuin muturrari berea izan beharko lukeen espazioaren, eztabaiden eta jendearen zati bat oparitzen ari?

EZKERRA: ARDURA EDO SUMISIOA?

Iturralde, Mayor eta Barrenetxea bat dutoz gauza batean: boterea agintekeria hutsetik ari da osasun krisiaren aurrean neurriak inposatzen. Ez azalpenik, ez pedagogiarik, ez iritzi trukerik, ez eztabaidarik; jakinarazi, eta betearazteko zigor neurriak ezarri. Jendartearen infantilizazioa ikusten dute. Ez da berria, baina jauzia nabarmena da: orain gutxi onartezinak liratekeen autoritarismo mailen onarpena normalizatzen ari da jendartearen ezkerra barne- denbora tar- te oso laburrean. Asmo onez eginak eta norabide egokian hartutako erabakiak balira ere, arazo larria.

Iturraldek uste du osasun krisiaren hasierako agintekeria ezjakintasunaren eta inprobisazioaren ondorio izan zela, “baina gero konturatu dira, ‘ostia! mas- kara jartzeko esan eta jarri egin dute, bi metrora egoteko, eta hala daude, umeak bi hilabetez etxean eta zaharrak egoi- tzetan ixteko, eta onartu egin dute. Hau zoragarria da!’. Esperimentu soziopo- litiko bilakatu dute”. Kapitalismoa era- so kualitatibo bat egiteko baliatzen ari da egoera, bere ikusmoldez: “2008ko

“ Nahasmen horretan, ezkerretik ez bada azalpen on bat ematen, ez badira beste bide batzuk jorratzen, disidentzian kaosa sortzen da”

krisiaz geroztik kapitalismoak eta bote- reak reset egiteko beharra zuten, esplo- tazioan eta prekarietatean sakonduz”. Mayorrek asmo antolatua baino gehiago ezgaitasun orokortua eta kudeatzeko ezintasuna egozten dizkie Euskal Herri- ko agintariei, ospitale kolapsatuen iru- dia ekiditea helburu bakar dutela. “Bes- tela, jendea hiltzea, gaixotzea... onartu beharreko gaitz txikitat hartzen dituz- tela dirudi”, dio.

Barrenetxeak dio kritikiko direnak ere “dena errespetatzen” ari direla, “nora

goazen ez dakigulako” eta beldurragatik. Iturralde beldur horren eraginaz sumi- duta mintzo da: “Euskal Herrian bertsio ofizialak zalantzan jartzeko, errealita- tea modu alternatiboan interpretatzeko edota erantzuteko dagoen gaitasunare- kin... Ez nuen espero horrelako sumi- siorik, desobedientzia erabat baztertuta geratzea”. Mayorrek beste angelu batetik heldu dio: “Sumisio horren parte bat ar- durak azaltzen du. Jendartearen agintariak baino helduago jokatzeko ari, ‘hemen be- netako arazoa dago’ esanez”. Ezkerrak beste eredu bat mahai gaineratu duela iritzi dio, “neurri murriztaileagoak ere planteatuz kasu batzuetan, baina jendea zaintzeko, ez ekonomia”.

Oinarrizko eskubideak bertan behera uztea osasun eskubidearen “ustezko” de- fentsaren izenean inposatzen ari direla salatu du Iturraldek. “Non egon da orain arte osasunerako eskubidea?”, dio, go- goan dituela lantokian edo etxeetan hil- dakoak, pobrezia, buruko gaixotasunak edo kutsadura. Herritarroi gure osasuna- ren gaineko erabakitasa lapurtu zaigu, “besterendu”, bere ustetan. Erretzailea bere osasun fisikoaren kaltetan ari da, baina erabakia berea da, COVID-19a- kin ez da horrela. Zahar egoitzako egoi- liar askok esan diote horrela bizitzeko nahiago dutela *bitxo*a hartu, “baina era- bakimen hori kendu diegu”. Arabako Foru Aldundiko arduradun politiko ba- ten hitzak gogoratu ditu: “hobe zahar tristeak, hilak baino”. “Berak erabakitzen du, eta gainera bizitza horiek hobetzeko deus egin gabe”, salatu du Iturraldek. Ma- yorren azalpena: “Tristeak ez dira kuan- tifikatzen, hildakoak bai”.



Bitartean, neoliberalen ere osasun publikoaren defentsan hitz egiten duten honetan, osasunaren pribatizazio prozesua azkartu egin da. “Dirua baduzu, beldurra eta antsietatea, nor berera doa. Alde pribatua aprobetxatzen ari da eta ez dago elkartasunik”, dio Barrenetxeak. Osasun pribatuak propaganda biderkatu du, “jende asko ari da mutualista egiten, izugarritzko negozioa ari dira egiten”, salatu du Iturralkdek. Alarma egoeran osasun pribatua interbenitu beharrean itunak egin dira, dirua publikotik pribatura bideratuz.

“BAI ALA EZ” ORDEZ, “ZERTARAKO”, “ZER NEURRITAN”, “NOLA”

“Ezkerretik ez da egon jarrera kritiko bat, esanez hau bai, hau ez; hau pasada bat da, hemen ez gara nahikoa egiten ari”, dio Iturralkdek. Hain zuzen ere, ‘denari bai ala ez’ logikak nagusitu dira, ñabardurarik gabeko eztabaida geldiarazleak, polarizazioa eta sinplifikazio antzuak elikatzen dituztenak: konfinamendua –edo masakarak, PCRak, txertoa...– bai ala ez? Ziurrenik emankorragoa litzateke eztabaidei beste toki batzuetatik heltzea: Zein da helburua? Helburu horretarako bitarteko ona da edo bada hoberik? Neurri horrek zer aukera eta zer muga ditu? Nola erabilia da erabilgarria eta nola ez?

Bigunago edo gogorrago, Ipar Euskal Herria jada konfinatuta, eta Hegoaldea konfinamendu berriaren atarian dago. Txertoa heldu edo ez –horra eutsi beharreko beste eztabaida potolo bat–, egoerak luze joko du. “Erlazionatzeko eta sozializatzeko neurri hauek ezin dira mantendu luzera begira, bestela beste patologia batzuk sakonduko dira: biolentzia, agresibitatea, etxetan tratatu txar gehiago... erdibideko konponketa bat topatu beharko dugu denon artean”, ohartarazi du Barrenetxeak. Baina gure solaskideak ados daude pertsonen arteko kontaktuak murriztu behar direla. Konfinamendua, orduan? Segun eta nolakoa eta, batez ere, eztabaida sozial baten ondorioz erabakitakoa.

Konfinamendu ereduak sortu dute eztabaidarik ezkerrean. Zenbait zientzialarik sustatutako Barringtongo adierazpenak –Suediako eremuan oinarrituta– “babes fokaliza-

COVID-19ARI AURRE EGITEKO ERREMEDIO-KUTXA OSATUZ

 PELLO ZUBIRIA KAMINO

Eta COVID-19a ez harrapatzeko edo hartaz kutsatutakoan gaitza arintzeko, herritarrek bere kasa ezin ote du ezer egin? Arduradun politiko eta medikuen aldetik, osasun sistemaren kaosa pixka bat goxatzen laguntzeko besterik ez bada ere, ez ote lukete sustatu behar terapia osagarriak ere erabiltzea, medizina bigunak, enpirikoak, tradizionalak?

Txinako osasun sistemak esku batekin jokatzen du medizina ‘mendebaldarra’ren arloan –bioteknologia, txertoa, farma-industria...–, bestearekin medikuntza tradizionala erabiliz. COVID-19ak Txina jo duenean, bertako hedabide nagusiek oihartzuna eman diete Txinako Medizina Tradizionalaren Agentzia Estatalak koronabirusari aurre egiteko baliagarritzat aitortzen dituen terapiak. Hauetan badira belar formulazioak baina baita akupuntura, Tai-Chi eta bestelako osatutakoak.

Muturreko larrialdi egoerak kudeatzen maisuak diren kubatarrek ere –Euskal Herrian COVID-19ak eragin duen lurrikara orain artean gauza txikia izan da han Sobiet Batasunaren hondoratzeak ekarri zuen ‘periodo espezial’aren aldean– ongi dakite zer den terapia ez-kimiko eta ‘ez-zientifiko’etara jo behar izatea herritarren bizi ezina arintzeko. Kubako Osasun Ministerioak ere lan egiten du alde batetik ‘Soberana’ txerto propioa garatzen eta Interferon alfa bezalako botikekin, eta bestetik bere ohiko kanaletatik eskaintzen ditu koronabirusarentzako erremedio natural eta osagarriak, izan fitoterapiazko, apiterapiako edo homeopatiakoak.

Euskal Herrian osasun sistema publikoek farma-industriak saldutako terapiak eta produktuak baizik eskaintzen eta ordaintzen ez dituztenez, herritar eta familia bakoitzaren gain geratzen dira bestelako sendabide guztiak. Jo dezake –sakelatik pagatuta, pre-fosta– pribatuan ari diren mediku eta terapeuta ugarietara. Edo ikasi behar du bere osasuna ahalik eta zati handienean autokudeatuta zaintzen.

Gaixotasun kroniko baten jabe diren askok daki autokudeaketa horren

berri, denbora luzerako edo betirako oinaze eta sekueletara kondenatzen dituzten arazoei biziraun beharraren poderioz. Gaixo kronikoak badaki zein garrantzitsua den erremedioen kutxa, larrialdietarako ‘botikina’, aukera on, eskuratzeko erraz eta ahal bada merke horitututa edukitzea. Ezeri uko egin barik, baina erremedio bakoitzaren alde on eta txarrak ezagututa. Kroniko eskarmentudunak ez du borrokatzen arrazoi edukitzeagatik, bere arazoa konpontzearen alde baizik. Medikuntza ofiziala ala alternatiboa? Segun non, noiz eta nola. Eta beti, ahalik eta kalte gutxiarekin eta... ahal den merkeen.

COVID-19aren aurrean, lehenbiziko urratsa da ahal den neurrian prebentzea. Elikadura ona, osasun fisiko eta animikoa bereziki zaindu, babes neurriak pre-fosta –distantziak, musukoa, aireztatzea– birusei oztopo jartzeko, immunitatea sendo edukitzen laguntzen duten erremedioak eta birusen aurrean ahalmen bat badutela enpirikoki demostratuta daukaten erremedio eskuragarri eta merkeak hartu, hala nola fitoterapiakoak edo erleen propolia. SARS-Cov-2 birusarekin topo egitekotan, ahalik eta arinena gainditzeko saiatzeko.

Koronabirusak harrapatu eta ospitaleratu –eta gainditu– ostean, beste film nahasi batekin egin dezake batek topo: *COVID-19 luzea* deitu duten sindromearekin, COVID-19aren osteko eritasun kroniko batekin ere bai. Hasi dira, anekdotetatik harago, medikuak eta zientzialariak horri buruzko informazioak zabaltzen, batzuetan Neke Kronikoaren Sindromearenak bezalako koadroak oroitarazten dituztenak.

COVID-19 luze edo kroniko berri honen gaixoak laster ohartuko dira antzeko sintoma eta ondorioak dituzten beste gaixoak badirela, immunitate sistema ‘zoratuak’ kontrolatu eta bideratzen ahalegintzen direnak. Belarrekin, dieta egokituta, erleen produktuekin, terapia fisikoekin... edo Tai-Chiarekin, zergatik ez. Ez utzi dena profesionalen esku. Zaindu zure burua eta alboan dituzunak.

INAKIBEREZIARTUA

ENBALAJEAK
BILTEGIRATZEA ETA LOGISTIKA
ZERRA ETA ERAIKUNTZA



25 urte baino gehiago paketatze
industrialaren sektorean

Jauregi auzoa, 75
Hernani (Gipuzkoa)
☎ 943 552 828
www.inakibereziartua.com
mjm@inakibereziartua.com

mitxelena
NEURRI HANDIKO MEKANIZAZIOA



EZIAGO POLIGONOA, 21
HERNANI

info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com

tua” proposatzen du, talde immunitatea helburu: arrisku taldeetakoak ez diren pertsonak bizitza normala egin dezatela, eta zaurgarriak konfinatu –arrisku taldean jendartearen %25 da Euskal Herrian–. Esparru zientifikotik John Snow memorandumua sortu da Barringtongo adierazpenaren aurka. Solaskideek ere ez dute begi onez ikusi, baina bai arriskuaren arabera babes ezberdinduak ezartzea, bi arrazoiengatik: pertsona guztiak arrisku bera balute bezala tratatzea, gehien behar dutenei babes handiago bermatzeko oztopo da; guztiok arriskuaren lehen lerroan gaudela irudikatzeak neurritz kanpoko beldurra elikatzen du, besteak beste autoritarismoa erraztuz.

Eta konfinatu ordeztu, arrisku taldeetako pertsonak babesteko modua segurtasunez bizitza ahalik eta normalena ahalbidetuz eta kalera ateratuz zentratuko balitz? “Hori antolatu egin behar da, eta lehen arretatik. Baina lehen arretan gaude itota”, azaldu du Iturralde. Eta komunitatetik: Murgian, bere herrian, deseskalatze astean erabaki zuten zaharrek plazan egoteko eskubidea zutela, baina seguru sentituta. Horrek eskatzen zuen, haur eta gazteek espazio hori nola erabiliko zuten adostea, “baina ez agindu bezala, aholku bezala baizik”. Hirietan eta herri handietan zailagoa suerta daiteke, zaharren egoitzek espazio irekietarako sarbide naturalik ez dutelako askotan. Arrasaten, egoitza ondoko kale bat hesitu dute helduek behintzat hor paseatu ahal izateko, edo “zergatik ez autobusak jarri zaharrak egoitzaren atetik parke edo zelai batera eramateko”. Noski, horrek guztiak jendartearen onespina eta inplikazioa eskatuko luke. Eta hori aukera balitz, arazoa baino gehiago? Zaharren egoitzetan bezala, eskolan. Erabateko kontsentsua dago espazio osasuntsu eta seguruena aire libre dela. Nola liteke eskola presentzialaren oinarria espazio itxiak izatea? Iturralde bilobak ditu Alemanian: “Eskolan bost ordu ematen dituzte, eta eskolan sartuta bat. Gainontzekoan kaletan daude, elurra edo eguzkia egin”.

MASKARAK, PCR-AK, AZTARNATZAILEAK... ETA JUSTIZIA SOZIALA

Maskarek ere piztu dituzte aldeketasun eta aurkakotasun biziak. “Eztabaidatu behar dena da nola eta zertarako, logika pixka batekin”, dio Iturralde. “Esan digute ez dakarrela kalterik osasunera-

ko baina ez da egia, baditu ondorioak”. Erabili bai, “baina bi metrora bagaude espazio ireki batean, edo mendian, ez du zentzurik”.

PCR azterketei dagokionez, Iturralde azaldu du baliogarriak direla, baina fidagarritasuna erabatekoa ez dela jakinik ezin direla emaitzak era absolutuan interpretatu, eta arreta presentziala ezinbestekoa dela. Gertatu zaio, adibidez, ziur egotea paziente batek COVID-19a duela sintomatologiagatik, baina PCRak negatibo emanda isolatzeko aukera ez izatea protokoloaren zurruntasunagatik. Aitortu gabeko interesak ere aipatu ditu: “Lehen olatuan ezin genuen PCRrik eskatu, denak ospitalera. Ondoren neurririk gabe egitea agindu ziguten, ez denean beharrezkoa. Gero jakin genuen Europatik erkidegoetarako laguntzak zeudela egindako PCR proba kopuruaren arabera. Azken protokoloan PCR gutxiago egiteko agintzen da, eta lehen arretara antigeno piloa heldu da”. Administrazioak ematen dituen datuetan “koronabirusagatik” eta “koronabirusarekin” hiltzen direnak ez direla ezberdintzen kritikatu du, hilkortasun tasa zehaztasunez ezagutzea eragozten du horrek.

“Konfinatu ordeztu, arrisku taldeetako pertsonak babesteko modua segurtasunez kalera ateratuz zentratuko balitz?”

Aztarnatzaileen sistema eraginkorra da... Nahikoa aztarnatzaile jarritz gero, egin ez dena. “Kate bat planteatzen baduzu baina katebegtako batek ez badu funtzionatzen ez du zentzurik”, laburbildu du Mayorrek. Positibo batekin kontaktua izateagatik proba egiteko eta isolatzeko Osakidetza deia jaso behar zuten eta jaso ez duten pertsonak daude, ezin jakin zenbat. Kazetari honek hurbileko hiru kasu ezagutzen ditu: batek ez zuen deirik jaso; bigarrenak berak deitu zuen bere borondatez zortzi egun konfinatuta zeramatzanean; hirugarren bati bosgarren egunean deitu zioten. Bigarren arazo bat dago: “Errioxan positibo bakoitzeko zortzi kontaktu isolatzen



dira, EAEn bakarria. Euskaldunak ez gara hain asozialak”, dio Mayorrek. Iturraldek dio lehen positiboek 40 kontaktu zerrendatzen zizkiotela, orain hiruzpatala, ia elkarbizitza unitatera mugatuak: eta konfinatuta egoteak enplegua galtzeko arriskua badakarkizu? Eta etxea bizitokia baino gehiago *beldurtokia* edo *pilatzetokia* bazaizu? Edo bakardadeak itotzen bazaitu?

Politika sozial indartsuak eskatzen ditu konfinamenduak. Eta birusaren aurkako borroka oro har, Pompeu Fabra Unibertsitatean osasun publikoko ikertzaile Joan Benachek azpimarratu duenez: “Diskurtso hegemonikoen ardatza dira birusa, biologia, gaizki deituriko “bizimoduak” eta erantzukizun indibiduala, ospitaleko arreta mediko espezializatua (batez ere ZIUak), eta arazoa biomedikoki “konpontzeko” tratamenduak eta txertoak. Begirada miope, oker eta faltsua da; pandemiaren jatorria eta bilakaera azaltzen dituzten faktore erabakigarriak, neurri handi batean, osasunaren gizarte-determinatzaileak dira, hala nola lan-prekarietatea, pobrezia, etxebizitzako arazoak edo ingurumen-bidegabekeriak”. Gaitz gehienek bezala, birusak gogorrako kolpatzen du piramidearen behealdean.

EZTABAIDA, SORMENA ETA ERABAKITASUNA

“Jendarteak subjektu aktiboa izan behar du, eta hori da baimentzen ez dena, dio Barrenetxeak; jendartea indartu behar dela, Mayorrek; eztabaida zabal eta oro-

korra ezinbestekoa dela, Iturraldek: “Jendartean oro har, agente sozialen artean, eta dugun kaos disidente horretan”. “Eritasun honi aktiboki buru egiteko zozoegiak ote gara? [...] Gureaz hitz egiteko, herriko plazak berreskuratuko bagenitu? [...] Elkarren arteko konfiantza eta beldur gabeko eztabaidak piztuko bagenitu?”, proposatu dute azaroaren 7an Ipar Euskal herrian kontzentrazioak deitu dituzten “biztanle batzuek”. Eztabaidatzeak desadostasunak desblokeatzea ahalbidetzen duela gehitu du Barrenetxeak: “Erabaki prozesuaren parte bagara, ados ez gaudena onartzeko malgutasuna dugu”. Erabakiak eta jarrerak hainbeste baldintzatzen dituzten beldurrak, noraezak eta ziurgabetasunak onartuz eta konpartituz eztabaidatu, besteak beste: agian lagunduko luke zintzoago eta apalago hitz egiten; enpatia gehiagorekin entzuten; elkar indartzen.

Herritarrak hilabeteak daramatzate kalean. Osasun krisia agenda neoliberalean sakontzeko erabili nahi dutela salatzeko, nor bere esparruko aldarrikapen zehatzak borrokatzeko eta erakundeei politika sozial sendo orokorrak exijitzeko, nagusiki. Ezinbesteko hiru ariketa. Proposamenak garatzea zaila dela dio Mayorrek, “konplexua da, multidiziplinarioa izan behar du. Zertarako ideia oso onak gero sistema publikoa ez bada atzean egongo bultzatzeko?”. Baina nork bere arlotik ekitea defendatu du, “ikusita tokatzen zaionak ez duela egiten, ezin gara gelditi geratu”.

Urgentziazkoa da herritarrak modu

autoantolatuan proposamen zehatzak garatzea, eta, batez ere, euren kabuz praktikan jartzera arriskatzea. Eta horretan gabezia handia da. Arriskatu, bi zentzutan: krisi eta eraldaketa anizkoitz garaioan, ziurgabetasuna bidelagun borrokatu beharko delako bai ala bai, proba-errore dinamika batean; eta Barrenetxeak proposatu bezala “legeak dioenaz harago bidezko deritzogunaren arabera” jokatzea eskatuko lukeelako, ondorioak dituen.

Auzolanaren kultura berreskuratzea proposatu du Barrenetxeak, “gaur nik zuri, bihar zuk niri, lorpen materialez gain oreka mentalerako oso erreminta ona da”. Komunitate txikiak –herriek, auzoek– aukera gehiago ematen dutela uste du Iturraldek. Murgian lehenbiziko olatuan sortutako elkarlaguntza sarea berraktibatu dute dagoeneko. Beharrak badira, horiek asetzeko ideiak ere: zerrenda zehatz eta gauzagarri oparoa eman ziguten *Eta hurrengo konfinamenduan zer erreportaje*ko partaideak udako ARGIAren Gakoak urtekarian auzogintzarako, udalgintza eta ekonomiarako, arrazializatuen borrokatik eta osasungintzatik.

“Urgentziazkoa da herritarrak modu autoantolatuan proposamen zehatzak garatzea, eta, batez ere, euren kabuz praktikan jartzera arriskatzea”

COVID-19aren, autoritarismoaren, eraso kapitalista eta patriarkalaren birusei aurre egitea arnas luzeko zeregina da inondik ere, gurutzatzen baita aldaketa klimatikoaren, naturaren suntsiketaren edo kolapso energetikoaren eronkekin. Paisaia lazgarri horri begira ahoskatu du Iturraldek: “Nire seme-alabak eta bilobak ni baino okerrago biziko dira”. Hori pentsatzeko motiborik ez du faltan, baina zentzuzkoa da ere erantzutea: edo ez. Eztabaida gotortuak elikatu eta etorkizun distopikoak prefiguratu ordez –nahi gabeen etorkizun horiek elikatzen dituen askotan–; askoren artean, hankak lurrean eta utopiak buruan borrokatzen badugu oraina? ●

KIKE AMONARRIZ (TOPAGUNEA) ETA

MIREN DOBARAN (HPS)

Pandemiak baldintzatutako Euskaraldiak *arigune*-etan ipini du erronka

Miren Dobaran Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea eta Kike Amonarriz Euskaltzaleen Topaguneko lehendakaria elkarriketatu ditugu, Euskaraldiaren antolatzaile nagusiak. Bigarren edizioan *arigune*-ak dira protagonista. Dobaranek saltoki handiak eta finantza erakundeak euskararen estrategikotasunaz konbentzitzeko darabiltzaten diskurtsoak azaldu dizkigu. Amonarrizen ustez, herritarrek eta eragileek bezala, erakundeek aurrerapausorik ematen ez badute Euskaraldiak zentzua galduko luke.

 ONINTZA IRURETA AZKUNE  DOSPORDOS

Zuek zer izango zarete, *belarriprest* edo *ahobizi*?

Miren Dobaran: Nik *ahobizi* aukeratu dut, nahiz eta izena eman dutenen %80k ere *ahobizi* aukeratu duen eta *belarriprest*-ak behar ditugun. Normala da [antolatzaileen ustez *belarriprest* kopuruak handiagoa izan behar du *ahobizi* kopuruak baino], bigarren aldia da, ez da erraza rol bakoitzak zer esan nahi duen ulertzea eta jendeak rolak gaitasunarekin lotzen ditu, jokabidearekin baino. Oreakarik ez dago [*belarriprest* eta *ahobizi* portzentajeetan], eta hor jarri behar dira indarrak. Masa kritiko handia daukagu agian hamabost egunerako *ahobizi* konpromisoa ezin duena hartu, baina bai *belarriprest*-arena. Ez dakigu jende horrek

rolak ez dituen ulertu eta horregatik ez den animatu *belarriprest* izatera edo zer gertatu den. Lana egin behar dugu, jendeari ulertarazteko eta beldurak kentzeko.

Kike Amonarriz: *Ahobizi* izango naiz. Mirenek esan duenaren haritik, orain arte iritsi ez garen sektoreetara iritsi nahi baldin badugu progresioaren ideia oso inportantea da. Bi rol egoteak hori adierazi nahi du. Hizkuntza praktiken aldaketan badago graduazio bat: lehen urrats batzuk emateko prest baldin bazaudete, baina ikusten baduzu *ahobizi*-aren konpromisoak urrutiegi daukazula, tarteko etapa bat daukazu. Tarteko etapa hori zenbat eta handiagoa izan, orduan eta aukera gehiago sortuko ditugu euska-

raz egiteko, eta orduan eta jende gehiago hurbilduko dugu euskararen praktikara.

Euskal Herri osorako ariketa berdin planteatzeak ez dauka arriskua ingurune batzuetan, batik bat euskaldunetan, ariketa ahultzeko?

K. Amonarriz: Kontrakoa ikusten dut. Herri txiki euskaldun batean, behar bada, txapak ere ez dituzte behar bakoitzaren denek badakite euskaraz egiten dutela, baina herri txiki horietan ere, badi-ra euskararen erabilera ohikoa ez duten pertsonak eta horiek hurbiltzeko *belarriprest*-aren figura ezinbestekoa da. Bestalde, ingurune edo familia erdalduanean bizi denari esaten badiogu mundu guztiari lehen hitza euskaraz egin behar



EUSKARALDIA

"Mercadonari esan diogu: hemengo produktuak saltzea kalitatezko zerbitzua eskaintzea da, baina hemengo hizkuntza eskaintzea ere bai".

MIREN DOBARAN

"Euskaraldia formatu berria da, ahula ere bai, oraindik gorpuztu eta sendotu behar du. Ez lioke batere onik egingo menpekotasunak, ezta ere konfrontazioak".

KIKE AMONARRIZ

diola eta inguruko guztiekin euskaraz egin behar duela, kolapsatu liteke eta utzi. *Belarriprest*-aren figura abegikorra da, motibatzailea, eta harrera funtzioa betetzen du.

Ehuneko bosta galdu genezake *ahobizi*-ak izan zitezkeen horietan? Bada, agian, gal genitzake, baina irabazteko daukaguna galdu genezakeena baino mila bider gehiago da.

M. Dobaran: Ados nago. Entrenamendua behar dute eta ezin dute ariketa hasi estresatuta. Jendeak serio hartzen du hau eta ondo egin nahi du.

Arigune-ena kontzeptu berria da eta pandemiaren eraginez zailtasunak izan dituzue haiek

zer diren azaltzeko eta sortzeko. Zenbaterainoko sendotasuna izango du entitateek arigune-ak sortzeko hartu duten konpromisoak?

M. Dobaran: Saiatuko gara ahalik eta pedagogia lan onena egiten. Hala ere, hau ez da bukatuko edizio honetan. *Arigune*-ak egiteko sortu den dinamikari ematen diot batez ere garrantzia. Lantoki batean lantalde batek adostea zein hizkuntzatan hitz egingo duten eta hori mantentzea ikaragarria da, sekula ez da gertatu. Batzuek ulertzen dutelako eta besteak hitz egiteko gai direlako bilerak euskaraz egitea adostea normalizatu eta sistematizatu balitz, askoz ere aurrerapauso handiagoak emango genituzke erakundeetan eta lantoki pribatuetan.

K. Amonarriz: Egin kontu *arigune* bakoitza sortzeko barne azterketa egin dutela, erabaki bat hartu dutela, jendearen onarpen bat egon dela... Hemen sortzen den ereduak hemendik bi urtera *arigune*-en potentzia biderkatu dezake eta konbentzituta nago oso emaitza onak lortuko direla aurten ere. *Arigune*-ak sortzeko eraman duten prozedura eraman da eta baldintza hauetan [pandemia garaian], esan nahi du oso jende motibatua eta kontzientziatua dagoela.

Bigarren edizioan entitateek garrantzi berezia hartuko zutela esan zenuten. Nolako lanketa egin duzue?

M. Dobaran: Finantza erakundeekin batzorde bat daukagu lanean. Esan genien

Nolakoa izango da bigarren edizioa?

Hizkuntza ohiturak aldatu eta euskaraz gehiago egiteko ariketa azaroaren 20tik abenduaren 4a bitartean egingo da. 2018an ariketa hamabi egunekoa izan zen eta aurten hamabostekoa izango da. *Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan* lelopean egingo da bigarren edizioa.

Egitasmoan parte hartzeko bi baldintza bete behar dira: 16 urtetik gorakoa izatea eta gutxienez euskara ulertzeko gaitasuna izatea. Azaroaren 19ra arteko epea dago *ahobizi* edo *belarriprest* rola aukeratu eta ariketan izena emateko.

Edizio berezia izango da aurtengoa, COVID-19ak baldintzatutakoa. Antolatzaileek aitortu dute herri batzordeak martxan jartzea eta entitateetan *arigune*-ak sortzea zaila izan dela.

Lehenengo edizioan bezala, *ahobiziek* eta *belarriprestek* protagonismo handia izango dute, eta egiteko bera. Euskaraldiaren antolatzaileen nahia izan da aurten bi rolak hobeto azaltzeko ahalegin handiagoa egitea eta ariketa sakonago eta zorrotzago egiteko aukera izatea. 2018an hizkuntza gaitasunarekin lotu ziren bi rolak, eta horregatik, ahalegin berezia egin nahi izan dute rol bakoitzak zer esan nahi duen azaltzen. Aurrekoan bezala, identifikazio txapak eramango dira paparrean.

2020ko berrikuntza *arigune*-ak dira. *Arigune*-ak euskara ulertzen dutenak eta euskara dakitenak elkarrekin euskaraz arituko diren gune kolektiboak dira. Entitateek, dela denda txiki, saltoki handi, erakunde publiko, lantegi edo herriko elkarteek halako guneak sortzeko erraztasunak jarri dituzte eta gune horietako pertsonak ariketan parte hartzeko nahia adierazi dute. *Arigune*-ak barrura begirakoak edo kanpora begirakoak dira. Adibidez, barrura begira, enpresa bateko bilerak euskaraz egin daitezke parte hartzaile guztiek euskaraz ulertzeko gaitasuna dutelako eta enpresan zuzendaritzaren eta langileen artean bilera horiek *arigune* bihurtzea erabaki dutelako. Kanpora begira, saltoki handi batek saltzailez osatutako *arigune* bat sor dezake erosleei zerbitzua euskaraz eskaintzeko.

Euskaraldiaren antolatzaile nagusiak 2018ko berak dira: Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza eta Euskaltzaleen Topagunea. Haiekin batera arituko dira Euskarabidea, Euskararen Erakunde Publikoa, Euskal Elkargoa eta Euskal Konfederazioa.

Euskaraldia zetorrela eta *arigune*-ak sortzeko eskatu genien. Erantzuna oso ona izan zen. Hemengo kutxek-eta aspalditik dituzte erabilera planak, nahiko irabazita ditugu, baina nik nahi dut Euskaraldia BBVAn edo Banco Santanderren egitea. Eta ondoren abia ditzatela euskara planak eta abar.

Saltoki handien batzordean ere berdin egin dugu. Batez ere egoitza kanpoan dutenei beren beregi esan zitzaion zein garrantzitsua den ez bakarrik 0 kilometroko produktua izatea, baizik eta hemengo hizkuntzaren aldeko apustua egitea. Adibidez, Mercadonari esan diogu: hemengo produktuak saltzea kalitatezko zerbitzua eskaintzea da, baina hemengo hizkuntza eskaintzea ere bai. Era naturalean hartzen dute. Orain beraien arazo handiena da euskaraz aritzeko nahikoa gaitasun ez duten pertsonak ari direla kontratatzen, lan merkatuan ez dagoelako.

Bai finantza erakundeetan bai saltoki handietan, lehia handia dago eta hori guretzako ona da, zeren hasiko dira: “Zuk hemengo produktuak? Nik ere bai. Zuk hizkuntza? Nik ere bai”.

Bidea hori da, sektoreka aritzea eta bati esatea gizarte erantzukizunagatik egin behar duela; beste bati “zuk jakingo duzu, baina ez duzu salduko”; besteari kontsumitzaileak eskubidea duela.

K. Amonarriz:

Lehia aipatu duzu.

Euskaraldiak erreferentzia eskaintzen die oraindik euskararen gurdira igo ez direnei edo makal dabiltzaneni. Euskal Herri osoan egiten den ariketa sozial masiboa izanda, daukan ikusgarritasuna handia da. Bezeroek, erabiltzaileek, herritarrek, ikusten dugu zeinek eman duen horretara pausoa eta zeinek ez. Horrek lehia positiboa sortzen du hizkuntza erabilerari begira. Herrietan ere nabari da.

Diskurtsoari dagokionez, sektorearen arabera egokitzen ari gara. Kalitatearen diskurtsoa daukagu, bezeroaren hizkuntza eskubideak...

baina herriko kirol elkartera goazenean ere diskurtsoa doitu egin behar dugu.

Erakunde publikoei dagokienez, pandemian bestelako aurpegia ikusi dugu. Gobernuaren komunikazio estrategia, asko, gaztelaniaz izan da. Herritarrek kexatu dira, baita kazetariak ere. M. Dobaran: Argi dago arazoak egon direla, ez dute funtzionatu gure prozedura batzuek. Itzulpenak ez dira egin sasoiz, beranduago ateratzen ziren gazteleraz arineketan produzitu behar izan delako. Hausnarketa egin dugu. Gobernu berriarekin aldaketa ikaragarria dagoela uste dugu, jada prozedura batzuk martxan daude, saiatzen ari gara batzarrak urteenteetan ere neurriak eta abar bi hizkuntzetan ateratzen, eta hori da gure helburu nagusia orain: erakundeei eta herritarrei informazioa euskaraz eta gaztelaniaz aldi berean helaraztea. Gure sailburu berriak egiten ari diren ahalegina ikusi da gobernu berrian. Guk izan behar dugu eredugarri.

K. Amonarriz: Pandemiak agerian utzi ditu hainbat ahulgune. Horietako bat izan da nabarmen ikusi dela zein erakunde, establezimendu edo gizarte eragiletan ohituta zeuden erdaraz funtzionatzen, eta ondoren euskarazko itzulpena egiten. Harrigarria da, zeren



Hor dauka indargunea Euskaraldiak, aurten hasitako bideari bi urtean segida eman beharko zaio, batez ere entitateen ikuspegitik”

KIKE AMONARRIZ

nahiz eta erdaraz lan egin, komunikazio publikoak euskaraz egiteko baliabide guztiak ditugu, itzultzaile neuronalak hor daude, eta lana aldi berean eginez gero ez dago inolako arrazoirik euskarazko komunikazioak ez ateratzeko edo beranduago egiteko.

Euskaraldiak balio du disfuntzio horiek nabarmentzeko eta disfuntzio horiei aurre egiteko arrazoi gehiago edo presio gehiago izateko, bai erakundeetako, baita herri mailakoei ere. Euskaraldiak aterki bat eskaintzen du eskaera horiek babes zabalagoa izan dezaten.

Pandemia hasi zenean denok izan genuen zalantza: “Egin ahal

izango dugu?”. Uste dut hartutakoa oso erabaki egokia izan zela. Euskaraldirik egin ez balitz orain, kontuan izanik gainera Korrika bera ere atzeratu dela, euskararen gaia erabat desagertuta egongo zen agenda soziopolitikotik. Euskaraldiak balio digu bai instituzioen barrutik, bai euskalgintzatik edo bestelako eragile sozialetatik euskararen gaiari beste zentralitate bat emateko, elkar babesteko, eta elkarren artean indar handiagoa egiteko.

Hizkuntzaren erabileraren ardura herritarren bizkar uzteko arriskua dago Euskaraldiaren bidez? Gobernuaren ardura baztertzeko arriskua dago?

M. Dobaran: Guk badakigu zeintzuk diren gure ardurak, baina beste alde batek, badakigu bakarrik ezin dugula. Esparru batzuetara gobernu ezin da heldu bere esku-hartze soilaren bidez. Gobernuak diru baliabideak jarri behar ditu, legeak egin behar ditu, eta gizartearen atxikimendua irabazi. Eredugarri izan behar dugu eta eduki behar dugu amets bat, sinetsi behar dugu kapaz izango gara eremu gehiago irabazteko. Gizartea lo ikusten dut. Batzuk protestaka ari dira esanez ez dugula ezer egiten eta beste batzuek diote euskararena lortuta dagoela. Ez, ez, borroka hau maratonia da. Gizarteak jakina daukala erantzukizuna, gizarteak erabaki behar du hizkuntza gutxitu batean bizi nahi duen ala ez. Eta erantzukizuna konpartitua da. Guk lau urtean behin azterketa daukagu.

K. Amonarriz: Euskaraldiak arrisku horren kontrakoa ekarri du. Ekarri du oso garbi ikusaraztea hizkuntza ohituren aldaketarako ariketa soziala egingo bada, eta neurri batean, hizkuntza ohituren aldaketa globala emango baldin bada, ezinbestekoa dela erakundeek eta administrazioek dagozkien erantzukizunak beren gain hartzea. Hasieratik esan genuen Euskaraldiak praktikak, aldaketak, eta konpromiso zehatzak eskatzen dituela. Zorionez, Euskaraldiak lortu du Euskal Herriko erakunde eta udalerrri gehienek adostasuna, baina adostasuna praktikara eramateko konpromisoa ere hor dago. Ez baldin bada ikusten Euskaraldiaren eraginez erakundeetan aurrerapausoak ematen direla Euskaraldiak bere zen-



tzua galduko du. Eragileek eta herri-tarrek ere aurrerapausoak ematen ez badituzte zentzua galduko du. Euskaraldiaren indarrik nagusienetakoa da eragile bakoitzari bere funtzioa bete dezan eskatzen diola.

Bigarren edizioa eta gero zer?

M. Dobaran: Pandemiaren testuinguruan kokatuta zelan joan den ikusi beharko da. Adituei eta herri batzordeei entzungo diegu. Horrela erabakiko dugu hirugarren edizioa, baina ez nuke arinegi joan nahiko. Kontua ez da gauza berriak asmatzea, ez bagara gai edizio hauetako oinarri-oinarritzko ariketak ulertzeko. Kontua da bi urtean behin egiten segitzea, eta hau ez bilakatzea jai bat. Pazientzia behar da, badakigu honen emaitzak ez direla bi edizioetan ikusiko, baina ea edizio batzuk egiten direnean aldaketa batzuk ikusten diren eta jendeak ahalduztze prozesu horretan esparru zailagoetan pausoak ematea erabakitzen duen.

K. Amonarriz: Iruditzen zait hirugarren Euskaraldia ez dela bigarrenarengandik hain diferentea izango, beti ere kontuan izanda bigarren hau zein baldintzatan egin behar izan dugun. Oraindik finkatu beharrean gaude. Hizkuntza ohituren aldaketa egitea asko kostatzen den prozesua da, arigune-ak martxan jarri besterik ez ditugu egin.

“**Nik nahi dut Euskaraldia BBVA-n edo Banco Santanderren egitea**”

MIREN DOBARAN

la 70.000 lagunek eman du izena. 2018an 225.000 herritarrek eman zuten izena.

Izena eman dutenen artean %20ak lehen edizioan ez zuen parte hartu.

%80ak ahobizi rola aukeratu du eta %20ak belarriprest.

423 udalerririk eman dute izena eta 375 herri batzorde eratu dira.

6.737 entitatetan 25.000tik gora arigune sortu dira.

%52 barne arigune-ak dira eta %48 kanpo arigune-ak.

Arigune gehien sortu dituztenak saltoki eta zerbitzu email txikiak, elkarteak, hezkuntza arloko eragileak, zerbitzu enpresak eta erakunde publikoak izan dira.

Oharra: azaroa hasiera arteko datuak dira.

Zer dira belarriprest eta ahobizi?



Belarriprest: Beraiei euskaraz hitz egiteko eskatzen dute, euskara ulertzen dute eta beraiekin euskaraz aritzea nahi dute. Ulertzen duten guztiekin ez dute une oro euskaraz hitz egingo agian, baina ahal eta nahi duten guztietan egingo dute. Gakoa jokaeran dago eta ez gaitasunean.



Ahobizi: Euskaraz ulertzen duten guztiekin euskaraz egingo dute. Euskaraz ulertzen ote duten ez dakienean lehen hitza, beti, euskaraz izango da; mintzakideak euskaraz ulertzen badu, euskaraz jarraituko dute beti. Gakoa ahal den guztietan euskaraz egitea da, jokaerak definitzen du rola, alegia.



Euskaraldia palanka sendo bat da hurrengo urteetan erakundeetakoek, eragileek eta euskaltzaleek erabil dezaten beren erakundeetan euskararen biziberritze prozesuak indartzeko. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bezala, udalek hartu dute parte, eta denek aztertu beharko dute zertan hobetu dezaketen haien euskararekiko praktika. Hor dauka indargunea, aurreen hasitako bideari bi urtean segida eman beharko zaio, batez ere entitateen ikuspegitik. Banketxeak aipatu ditugu. Haiek bezala, adibidez, euskal telebistak ikusi beharko du zein urrats berri emango dituen ikus-entzunezkoen euskarazko eskaintza gehiago indartzeko edo ETB2 bera hizkuntzaren normalizazio bidean jartzeko. Kirol elkarteek berdín egin beharko dute. Denok sekulako terrenoa daukagu lanerako.

Hizkuntza politikaren aurrean erantzun soziala neutraliza dezake euskalgintzaren eta instituzioen arteko lankidetzak estuak?

K. Amonarriz: Topaguneak beti egin du elkarlanaren aldeko apustua eta horrek ez du esan nahi kritikak edo aldarrikapenak egin behar izan direnean egin ez dituenik. HPSren eta Topagunearen arteko errespetua eta konfiantza dago, baina bakoitzak badaki non dagoen eta zein funtzio bete behar dituen. Elkarlanak ekarri dituen onurak ikusi ditugu eta antzeman dugu zein

potentzialitate duen horrek. Euskaraldia formatu berria da, ahula ere bai, oraindik gorpuztu eta sendotu behar du. Ez lioke batere onik egingo menpekotasunak, ezta ere konfrontazioak. Beste gauza bat da ordea, bakoitzak bere funtzioak izatea, autonomia bere iritzia plazaratzeko. Elkarlana ez da bide erraza eta horrek ere entrenamendua behar du.

M. Dobaran: Guk ez dakigu beste era batera lan eginen. XXI. mendeko gizartearen gobernu batek gobernantza modu honekin lan egin behar du edo ezin du lanik egin. Ez dut imajinatzen euskalgintzari bizkarra emanda lan egin dezakedanik. Errespetua zor diogu elkarri. Nik badakit zein den nire erantzukizuna. Lehen esan dut, lau urtean behin azterketa daukat. Elkarlan honi esker lortu dugu Euskal Herri osoan lehenengo aldiz horrelako egitasmo bat martxan jartzea. Eta ez gara Topagunearekin bakarrik ari elkarlanean, euskalgintzako elkarte eta sektore guztiekin ari gara.

K. Amonarriz: Badago beste puntu bat beste hausnarketa baterako balioko lukeena: gauza bat da HPSrekiko harremana eta beste kontu bat da, gobernu osoa kontuan hartuko bagenu, euskarari zentralitate gehiago eman beharko litzaiokeela uste dugula. Sail batzuk ari dira lanean eta beste batzuetan euskarari nahiko periferikoa da. ●

NOLI ME TANGERE

Elkano Pizkundeko humanista utopikoa?

Filipinetako heroi nazional eta ekintzaile antikolonialista Jose Rizalek lagun margolari bati horrela azaldu zion *Noli me tangere* nobelaren izenburuaren zergatia: “Gaur arte inork esan gabeko mezuak jasotzeko eta mende luzez gugan metatu diren gezurrei erantzuteko idatzi nuen”. Badirudi hori dela Ekai Txapartegiren helburua *Elkanotar Juan Sebastian, Pizkundeko humanista utopikoa?* artikuluarekin. Bestelako ikuspegi bat eskaintzen saiatuko gara ondorengo artikuluan.



IDOIA ARRIETA ELIZALDE

Urrian *Gogoa* aldizkarian argitaratutako artikuluen egi-leak kritikatzeko du Elkanori buruzko diskurtso nagusia; Espainiako historiografiak XIX. mendean asmatu eta egun espainiar nazionalismoaren akademiko eta politikoek haien intereserako errepikatutakoa. Horientzat, Juan Sebastian Del Cano edo Elcano marinela getariarra, Espainiako Koroaren zerbitzura eta mesedetan aritutako nabigatzaile ausarta izan zen. Kontakizun horri tiraka, Europar Batasunetik ekarriko duten diruarekin negozio ekonomiko eta politiko bikainak egingo dituzte, eta Mundu Biraren V. mendeurrena baliatuko dute Espainia-

ren batasuna aldarrikatzeko, “espainiar itsasgizonaren balentriaren” izenean.

Txapartegik Elkanori bira herri ekimena ere bereziki kritikatzeko du. Kontakizun faltsuan harrapatuta daudela dio eta, “Elkano inperial” hori aintzat hartuta, Elkano goraipatzea ez dutelako gogoko.

Egileak beste kontakizun edo errelato bat proposatzen du, historiografia espainiarraren distortsioak gainditzeko eta Euskal Herritik Historia egiteko, bere hitzetan, ikuspegi “emankorragoa eta egiazkoagoa” eskainiz. Horretarako, “Elkano ezezagunaren” izaera eta pentsamendua Pizkunde garaiko humanista utopikoen mailara igo du.

Elkano definitzeko, ondorengo ad-jektibo eta laudorioak erabiltzen ditu: ez konkistatzaile, ez ebanjelizatzaile, ez koroaren zerbitzari leial, deserosoa inperioarentzat, desobediente, fidagarria, konfiantza muturreraino eramaten zuena, errebeldea, garbia, bete-betea, goitik beherakoa, tolesdura politikorik gabekoa, zentzu komunez mintzo dena, iritzi irmokoa inorekiko erra pertsonalik batere erakutsi gabe, kapitain demokrata, praktikoa, gizatasunez jokatzeko duena, apala, gardena, humanoa, talde liderra... Eta aldiz, espedizio horretan Elkanoren aurretik kapitain izandako Carvalho eta Magallanes lukurreriak eta anbizioak itsututako gizonak ziren, egilearen ustez.

“Interpretazio hegemonikoetatik ihes egin” eta Euskal Herriko heroia asmatzea eta gorazarre egitea proposatzen du Txapartegik. Beste mito bat eraiki du. Santu eredugarri baten hagiografia bat egin du, panegiriko bat. Elkano goستن jarraitzeko beste kontakizun bat, Mundu Biraren V. mendeurreneko ospakizun eta ekitaldi ofiziale-tako ildoari jarraituz.

Egileak sortu nahi duen mito hori sostengatzeko dokumentazioa aurkeztea beharrekkoa da, ordea. Eta horren falta agerikoa izateaz gain, badira Elkanok oso bestelako kontuak aditzera ematen dituzten agiriak ere.

ONARRIRIK GABE, PARADIGMA EZIN ALDATU

Ez dakigu asko Joan Sebastian Elkano-

ren gazte garaiaz. Badakiguna da, mundu bira ezagunaren aurretik, Afrika eta Mediterraneoan Espainiako kanpaina militarretan hartu zuela parte. Horrela dio Karlos I.ak, 1523ko otsailaren 13an Valladoliden idatzitako Errege Zedulak: “*vos siendo maestro de una nao de doientos toneles nos servysteis en lebante y africa*” (berrehun tonako itsasontzi baten jabe izanik sortaldean eta Afrikan gure zerbitzura aritu zinen). Mediterraneoan kanpaina horiek prestatzeko Alacanten denbora pasako zuela ondorioztatu dezakegu, eta horrek azal dezake zergatik Elkanok testamentuan hiri horretako Santa Veronica elizarentzat 24 dukateko dohaintza –egungo 12.000/15.000 euro– egitea agindu zuen. Garai hartan, portu hori oso ezaguna zen “pirata berbere eta turkiarren

kontrako armadak antolatzeagatik” (Salvador Bernabeu, CESICeko ikerlaria, 2018).

Elkanoren hurrengo pauso esanguratsua Magallaesen espedizioan itsasoratzea izan zen. Argi ikusten dira haren helburua eta izaera kapitulazioetan, erregearen eta espedizio-buruen arteko kontratu modukoetan. Bidaia inperioaren helburu estrategikoa zen, “estatuturazkoa”. Enpresa koloniala zen. Kapitulazioek hala diote: “*para descubrir lo que hasta ahora no se ha hallado, que en los límites de nuestra demarcación que hasta ahora no se ha descubierto, é lo poner só nuestro. Señorío é sujeción*” (gure mugen barruan oraindik aurkitu ez dena deskubritu eta gure menpe eta agindupean jartzeko). Lurralde berriak deskubritzeko eta auke-



ELKANO HUMANISTEN GISAN ANTZEZTUTA, 2016an Getarian, Mundu Bira ospatzeko ekitaldi ofizial batean. Argazkia: Irekia

ra ekonomikoak ustiatzeko agindua zuten. Muga kolonial berriak ezarri behar zituzten Monarkia Unibertsalaren eta fedearen izenean.

Edozein ikuspegitatik aztertuta ikus daiteke orduko espedizioek ez zutela merkataritza izaera hutsa. Kolonialismoa, intimidazioz gizarte oso bati ezartzen zaion menpekotasuneko harremana da. Kanpotik eragiten zaio eta herriaren garapena mozten da kolonizatzaileen beharren eta interesen arabera.

Mundu biratik urte gutxira, 1525ean, Moluka uharteak kolonizatzekeo Gaztelako koroak antolatutako Loaisa almirantearen espedizio militarrean parte hartzea erabaki zuen aztergai dugun Elkanok. Espedizio hartan hil zen, baina egun batzuk lehenago hilburukoa idatzi zuen. Hitz hauekin deskribatu zuen Elkanok berak bere ondasunen jatorria: *“E quanto todos los bienes míos son vienes castresnes e ganados en servicio de su Magestad”* (Nire ondasun guztiak zerbitzu militarrean eta Erregearen zerbitzura irabazitakoak dira).

Honakoak Elkanoren hitzak direnez ezin da zalantza egin. Getariarra Espainiako erregearen zerbitzura itsas-espedizio militarretan aberastu zen. Munduari bira emandako espedizioan 600.000 marabedi kobratu zituen, gaurko 800.000 bat euro. Diru sarriera horrekin bere bizitza aldatu zen eta aberatsen ohiturak hartu zituen. Horren erakusle dira bere testamentuan agertzen diren arropak: belusezkoak, satinezkoak, zilarreztatuak eta kapela frantses bat. Azkeneko espedizioan berriz, bidaiaren arrakastaren arabera 2.480 dukat edo gaur egungo 1.250.000 euro inguru irabaztea espero zuen.

Elkanoren formazioaz dagoen informazioa oso urria da, baina argi dago bere bizibideak ez duela zerikusirik humanismoari dagokion oinarri estetiko, literario, zientifiko edo espiritualetan. Elkanok itsas-epopeia gauzatu zuen, baina Tomas Moro eta Erasmoren parekatzea ezinezkoa da aldagaiak ez direlako konparagarriak, izaera ezberdina baitute.

XVI. Mende hasieran Amerikako bidaien inguruan idatzitakoengatik ezagun da Pedro Martir de Angleria italiarra. Berak Elkanok elkarrizketatzeko aukera izan zuen eta oso bestelako iritzia azaldu zuen. Angleriak Aita Santuari idatzi zion esanez mundu biratik bizirik heldu ziren 18 gizonak “ezagutzarik gabekoak zirela eta denak era berean espresatzen zirela” (*“Los 18 supervivientes son gente iletrada, y todos se expresarían de igual modo”*).

Maximiliano Transilvanok, Karlos V. Espainiako erregearen idazkari flandriarrak, marinelen testigantzekin idatzia osatu zuen latinez. Transilvanoren kontakizuna Elkanoren testu idatzian oinarrituta dagoela esaten duenik badago. Txapartegik berak dio Transilvanok azkar batean idatzitako kronikaren bigarren zatia, Elkanoren idatzi galduaren berehalako itzulpena dela, baina nik esango nuke bidaiariei entzutean, haien artean Elkanori, Transilvanori arreta piztu zitzaio-

“

Nire ondasun guztiak zerbitzu militarrean eta erregearen zerbitzura irabazitakoak dira”

Joan Sebastian Elkano

la. Itsasgizonen esanek onetsi egiten zituztelako erregearen asmoak: Molukak ustiatzea eta Txinara iristea.

Txapartegiren ustez, Elkanok Borneon irudikatzen ditu bere herri-rako nahi lituzkeen askatasun eta giza harremanak.

Deskribapen hori Elkanorena izango balitz ere –eta hori baieztatu aurretik agiriak aurkeztu behar diraguzak ez lirakeke aldatuko. Konkistatutako lurraldeetako deskribapenak gehienetan eta garai guztietan, baita erredukzio sistemetan ere –kolonizazio “baketsuak” deiturikoak, jesuiten misioak kasu–, informazio ugari eskaintzen dute giza-antolakuntzen, bizimoduaren, jantzien, janarien, ondasunen, armen eta abarren inguruan. Oso zehatzak eta ederrak izaten dira. Europarrek ahalik eta albiste gehien eduki behar zuten jakin-mina asetzeko, baina batez ere zer topatuko zuten jakiteko. Kolonizatuengandik gauza bakarra espero zuten: akulturazioa eta Europako baloreetara egokitzea. XVI. mendeko hedapen koloniala misio unibertsal gisara aurkeztu zuten, *basatiak* zibilizatu behar ziren. Abiapuntua europarren nagusitasun kulturala zen eta, nik dakidala, kolonizatzaileen al-

dean inork ez zuen hartu zapalduen aldeko jarrera irmorik.

AHANZURA ETA MITOAK: MEMORIAREN ETA EGIAREN ETSAI NAGUSIAK

Historiografia mota jakin baten helburua, gure herriko ekarpenak historia unibertsalaren eremuan kokatzea da. Eta horretarako askotan pertsona zehatzak goratzen dituzte marinelen, merkatariei edo abenturazale gisa aurkezturik. Dударik gabe, munduari bira ematea XVI. mendeko gertakari garrantzitsua izan zen eta euskaldun batzuk horren parte izan ziren. Ildo horri jarraituz, egileak eraiki dituen biografia eta edukia egungo euskal politika eta giza bibrazio ofizialarekin sinkronizatu ditu. Euskal herritarren historian ordea, estatutik gabeko herri batean bizi garenez, beti izan dira agintearen edo “besteena” kultura besarkatu dituenik. Nire ustez, horietako bat da Elkanok.

Elkanoren espedizio horietan, konkista gerrak, heriotzak, bortxaketak, zauriak... daude. Drama eta bortxa dago. Garaileek herri askoren kultura eta memoria desagerrarazi dituzte. Ez ditugu ezagutzen hildakoen izenak.

Denok uler dezakegu historia, baina non dago gure protesta? Non gure aldarrikapena? Eurozentrismoaren ikuspegi hegemonikoa baztertu eta Modernitatean Euskal Herriak jokatu zuen papera da aztertu behar genukeena, historiaren, zientziaren, ideologiaren eta emozioen deskolonizazio ariketa eginez. Herri baten erretratua iritziarekin, historiarekin, ipuinekin eta narrazioekin eraikitzen da eta etengabe ikusi behar dugu bertan gure burua islatuta.

Historialariak testuinguruan kokatu behar du gertatutakoa eta, distantzia hartu gabe, gure perspektibak aldi berekoa izan behar du; hau da, kasu honetan, kolonizatzaileak eta kolonizatuak kon-tuan hartuz. Beraz, galdera da, orduan egindakoa gizon eta emakume gehien onurarako izan al zen? Historialarien eta gertaeren arteko elkarrizketa bideratu beharko genuke, kultura guztiek, gureak barne, elkarrizketa horretan to-kia edukitzeko.

Erresistentzia gure historiaren esperimentazio bat da. Inperialismoari aurre egin dioten herri guztiek leku bat okupatu behar dute gure ezagutzan. Paradigma ez da aldatzen oinarririk gabe. ●

ESKOLAREN GESTIOA COVID19 GARAIAN

“Kudeatzen zailena izaten ari da zentzurik aurkitzen ez diegun protokolo batzuk segitu behar izatea”



Ikastetxeetako zuzendaritzak protagonismo eta zama handia hartzen ari diren garaiotan, eurei galdetu diegu ikasturte hasierako martxaz: nola daude ikasleak? Eta familiak? Moldatzen al dira eskoletan administrazioak bideratutako baliabideekin? Pedagogikoki nola eragiten ari da hau guztia? Kezka eta erronka nagusiak zeintzuk dira?... Gako ugari eman digute Gurutz Sanzberro Donostiako Lauaizeta ikastola publikoko zuzendariak, Mirentxu Ibargarai Seaskako Hezkuntza zuzendariordeak eta Nekane Lasa Iruñeko Frantzisko Deuna eskola publikoko zuzendariak: “Errealitatea teoria baino azkarrago doa”.

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Ikasturte berriari begira aurrez lan handia egin behar izan zenuten udan? Horrek bere fruituak eman ditu gero ala frustratuta hasi duzue ikasturtea? Gurutz Sanzberro: Ekaina bukaeran hasi ginen lanean, baina garatutako plan-gintzari ezezko borobila eman zion Hezkuntza Sailak, eta frustrazio sentsazioa eragin zigun, haien irizpideak direlako ikasturtea normal hastea, zer eta ikasturte hasiera atipikoena dugunean. Hala ere, eskola komunitatearen eta langileen inplikazioari esker bere fruituak eman ditu uztailean prestatutako kontingentzia planak.

Nekane Lasa: Konfinamenduan ikusitako beharrak eta Hezkuntza Departamentutik bidalitako protokoloa kontuan hartuta egin genuen kontingentzia plana. Halako plan bat pentsatzeak eta egituratzeak ahalegin handia eskatzen du eta abuztu bukaeran ikusi genuen oraindik materiala eta baliabideak ez zirela iritsi, eta urduritasuna nagusitu zen, korrika eta presaka aritu behar izan genuen bukaeran.

Mirentxu Ibargarai: Frantziako Hezkunde Nazionalak abuztu erdialdean atera zuen protokoloa eta gure helburu nagusia beti izan da eta izaten jarraitzen du haur guztiei harrera egin ahal izatea; hori lortu dugu. Baina biziki azkar joan da dena hankaz gora eta anabasa handia sortu da, bereziki kasuak agertu ahala kontaktuak izendatzearekin, emandako protokoloak ez zuelako funtzionatzen. Behar izan di-

tugu gelak eta ikastetxeak itxi, eta beste protokolo bat eman digute irailean.

Protagonismo eta zama handia jausi da ikastetxeetako zuzendaritzen gain. Pandemia zuek kudeatu behar duzuen sentsazioa geratu zaizue?

Ibargarai: Osasun zerbitzuaren eta Frantziako Hezkunde Nazionalaren aginduak koordinatu behar izan ditugu, eta batzuetan batak eta besteak irizpide kontrajarririk zituzten edo ez zieten gure galderei erantzuten. Erabaki batzuk gure kabuz hartu behar izan ditugu, mediku eta administrazioaren iritzirik gabe. Hori aski gogorra izan da.

Sanzberro: Logistika guztia, eremu pedagogikoen koordinazioa, familiarekin harremana, kezka, beldurak, zalantza... artatzea, hori guztia gure gain geratu da. Eta honi erantsi behar zaio burokrasia ikaragarria eskatzen digula administrazioak, langileen lan zama asko handituz eta baliabide gehigarririk gabe.

Lasa: Ikasturte hasierako ezjakintasuna izan da urduritasuna sortu duena: egoeraren arabera lau eszenatoki zeuden, azkenean eszenatokien halako nahasketa bat egin zuten, eta zehaztapena berandu iritsi zen, kasu positiboen aurrean uste genuena egiten genuen ikastetxeok eta aldaketak egiten joan behar izan dugu.

Zer da instituzioetatik espero eta nahiko zenuketena, eta jaso duzuen orain arte?



GOITIK BEHERA, EZKER-ESKUIN: Nekane Lasa, Mirentxu Ibargarai eta Gurutz Sanzberro. Baliabideak zentuz banatzea eskatu dute, ikastetxe bakoitzaren errealitatea kontuan hartuz.

Lasa: Egoera oso konplexua da eta egia da zuzendarien elkarteak Hezkuntza Departamentuarekin biltzen direla, baina errealitatea doa teoria baino azkarrago, eta gertatzen ari zaizkigu gauzak Departamentuari eta Osasun arloari ihes egiten diotenak, Hezkuntza Departamentuak ez duelako urratsik ematen Osasun arloaren oniritzirik gabe. Kasu positiboak gero eta gehiago dira eta erabat kolapsatuta gaude, kasuen artatzea eta segimendua gehiago luzatzen ari da denboran. Guk eskatzen duguna da Osasun arlotik telefono zuzen bat, edozer gertatzen dela ikastetxetik deitu ahal izateko, baina aukera hori ez dago.

Sanzberro: Gurean badugu Osakidetza-ekin zuzenean hitz egiteko aukera, baina Hezkuntza Sailari dagokionez faltan botatzen dut tokian tokiko diagnostikoa egitea. Erabakitzen diren irizpideak eta neurriak dira denontzat berdinak, aintzat hartu gabe ikastetxe bakoitzak bere ezauzgarriak dituela. Ez da berdina sei lineako ikastetxea edo herri txiki bateko eskola, baina administrazioak banatu dituen baliabide apurrak banatu ditu denentzat irizpide berdinak erabiliz.

Ibargarai: Administrazioa gaitutua izan dela eta gaia eskutik joan zaiela uste dut,

bereziki lehenengo hilabetean, eta ondorioak guk jasan ditugu. Adibide bat: Hezkunde Nazionalak oihalezko maskarek hornitu zituen ikastetxeetako langileak, baina irakasle bat gaixotzen zenean osasun zerbitzuek ez zuten oihalezko maskara babesgarri gisa hartzen; alegia, ikasle guztiak konfinatzen zituzten, irakaslea gaixotuz gero. Horren inguruan izugarriko eztabaida sortu da bi erakundeen artean eta azkenean erabaki da orain baietz, oihalezko maskarek babesten dutela. Kudeatzeko zailena izaten ari da zentzurik aurkitzen ez diegun erabaki eta protokolo batzuk segitu behar izatea.

Baliabideak dira gako garrantzitsuenetakoa.

Sanzberro: Batetik, ikastetxean lan egiteko moldea aldatu zaigu, zereginak ere bai, eta giza-baliabide gehiago beharko genituzke. Bestetik, hezkuntza telematikoak hartu duen garrantziari begira, familia batzuek ez dute behar bezalako konexiorik ez bitartekorik etxean, eta horri erantzuteko ere baliabide materialak behar dira. Bizi dugun egoeran aparteko inbertsioa egin behar luke administrazioak.

Lasa: Gure ikastetxearen kasuan, behar genuen material teknologikoa lortu ge-

nuen konfinamendu sasoian, baina beselako materialak eskuratzeko (espazioak banatzeko bionboak, metakrilatozko panelak, gel hidroalkoholikoa...) partida bat bidali zitzaien ikastetxeei, bakoitzaren beharrak kontuan hartu gabe. Ondorioz, eskola batzuetan materiala soberan dute eta beste batzuetan faltan. Giza-baliabideei dagokienez, 20ko ratioak jarri dituzte eta 20 ikasle baino gutxiago dituzten ikasgelek ez dute baliabiderik lortu, baina talde-burbuila bakoitzak bere irakaslea behar du, eta horregatik uste dugu baliabide pertsonalak ikastetxe guztietara bideratu behar zirela, ratioak ratio.

Ibargarai: Hemen ez da erantsi baliabide pertsonalik ez material baliabiderik, nahiz eta gela batean 30 ikasle izan, bereziki DBHn. Nik uste administrazioaren apustua izan zela kutsadura ez zela hain handia izaneren eskoletan.

Ratioak, espazioak, distantzia.

Baliabideak banatzerakoan burua hiruko horretan jartzea falta izan zaio administrazioari?

Lasa: Bai, ikastetxe batzuk eta besteak ezberdinak direlako, espaziotan, ikasle kopuruan...

Sanzberro: Batetik dago osasun egoe-

ra eta bestetik ikasleei eman beharreko arreta pedagogiko, akademiko, emozionala. Horri guztiari erantzuna emateko asko lagunduko luke ikasleen ratioa jaisteak eta irakasleen ratioa igotzeak. Eta noski, tokian tokiko hausnarketa egitea: agian mesedegarriagoa zaigu horma bat bota eta espazioa handitzea, irakasle bat ekartzea baino, edo alderantziz.

Ibargarai: Gurean nabarmena da, distantzia ahalik eta gehien mantentzeko dio protokoloak, baina ratioak ez dira jaitsi eta 30 ere ematen dira gela berean, distantzia mantendu gabe.

Kanpora ateratzeko hautua egin dute ikastetxe batzuetan, baina ikuskari eta administrazioaren aldetik trabak jaso dituztela salatu dute.

Sanzberro: Guk ere ikastetxetik kanpo aritzea planteatu izan dugu, baina horretarako legez handitu egin behar da irakasle kopurua, ikasle talde bat kanpora ateratzeko irakasle gehiagorekin joan beharra dagoelako, eta berriz ere giza-baliabideen faltarekin egin dugu topo. Gurasoen laguntza ere izan genezakeen, baina ikuskarriak esana digu bertako langileekin baino ezin direla atera ikasleak eskola-ordutan, eta beraz ez digute erraz jartzen.

Lasa: Kanpora ateratzeari baietz esan dio ikuskariak ikastetxe batzuetan eta ezetz beste batzuetan. Gure kasuan, jolas-ordurako ez dugu beste aukerarik, oso patio txikia dugulako, eta ratio txikiak ditugunez lortu dugu atsedendietan alde zaharrek plaza eta parkeetara ateratzea. Atsedendia luzatzen dugu gainera, bizikidetzat, hezkuntza emozionala eta gisakoak lantzeko tarte baliagarria delako, baina ikastetxe guztiei ez zaie aukera hori eman.

Ibargarai: Hezkunde Nazionalen protokoloek gomendatzen dute eskolak kanpoan ematea, eta batzuentzat parada izan da ikastetxetik ateratzeko, baina Gurutzek aipatu moduan laguntzaileak behar dira segurtasuna bermatzeko, eta horregatik ez da egiten nahi bezainbat.

Nola ikusten dituzue ikasleak? Ikastetxera itzuli ahal izan dute azkenean.

Ibargarai: Dudarik gabe, ikasle guztiak nahi zuten ikastetxera itzuli. Pozik hasi dira eta guk ere argi izan dugu beti, ahal genuen guztia egingo genuela ikasle guztiak hor izateko. Guretzat aldaketa da 6 urtetik goiti maskara eraman behar dutela orain ikasleek (zuek Hegoaldean ikasturtea horrela hasi zenutela badakit), eta

Nekane Lasa

“Kasu positiboak areagotu dira eta erabat kolapsatuta gaude. Eskatzen dugu Osasun arlotik telefono zuzen bat, edozer gertatzen dela ikastetxetik deitu ahal izateko, baina aukera hori ez dago”



eztabaida handia sortu du gaiak, ez daki-gu ikasleek nola hartuko duten eta zein ondorio izango dituen.

Sanzberro: Ikasleek behar zuten bizimodu normalizatzen hasi, elkarrekin egon. Salbuespenak salbuespen, oso ongi ari dira eta ikusten da gaia landuta dakartela etxetik.

Lasa: Erabat ados. Gogo handia zuten bueltatzeko, pozik datoz eta ezohiko egoera honetara ongi egokitzen ari dira.

Eta familien kasuan, kezkatuta al daude gurasoak? Presioa sentitzen duzue haiengandik ala elkarrekin ari zarete bidea egiten?

Lasa: Orokorrean elkarlana da nagusi, baina familia batzuek kezka dute, bai, ea neurriak betetzen ditugun. Egoera zaurgarrian dauden familia batzuk, aurretik jada absentismo maila handiagoa zutenak, ez dira oraindik hasi, erabaki dute egoera pasa arte ez direla etorriko. Horrek eragin latza izango du, kasu batzuetan.

Sanzberro: Kezka bai, baina familien pre-

siorik ez dugu izan eta orokorrean elkarlanerako joera da nagusi. Gehiago kezkatzen gaitu familia batzuei egoera aldatu zaiela, egoera ekonomikoa adibidez, eta lehen ez zeuden premia batzuk agertuko direla, erantzuna beharko dutenak.

Ibargarai: Ikastoletan toki handia dute guraso elkarteek eta komunikazioa etengabea da. Elkarlana handia da, protokoloak bideratzeko. Eta gurasoen artean denetik dago: batzuk kezkatuta daude, beste batzuk haserre orain maskararen gaiarekin...

Gauza bat da antolamendu logistikoa, bestea planteamendu pedagogikoa. Azken urteetan hezkuntza kooperatiboaren eta proiektukako ikaskuntzaren bidea hartzetik, ikasleak banantzera egin behar izan duzue bat-batean.

Ibargarai: Ikasturtea hasi zenean jendeak zioen talde lana fini zela egoera berrian, baina irakasleok beti izan dugu irudimen anitz, beti izan gara ikerlariak, eta hurbil segitzeko bidea asmatzen ari gara la uste dut, modu kooperatiboan aritzeko, protokoloa hein batean betez.

Sanzberro: Bai, sormenari eragin diogu, eta saiatu gara gure helburu pedagogikoak ez ahazten. Moodle eta antzeko teknologiekin eutsi diogu taldeka eta proiektuak aritzeko behar horri, nolabait. Egia da, dena den, ikasturte hasieran logistika eta antolaketa kontuek xurgatu digutela energia eta buru-belarri horretan aritu gara. Orain hasi gara gure arloa berreskuratzen, pedagogiari arreta jartzen.

Lasa: Ekintza eta proiektu batzuk hankamotz geratu dira, esaterako jolasgaraian zaharrenek txikiei jolasak antolatzea, baina kooperatiboki aritzeko helburua ez dugu baztertu eta formula berriak pentsatzen ari gara, telematikoki, eskutitz bidez...

Sarri entzun dugu ikasturte hasiera honetan gako inportantea izango zirela errefortzuak, konfinamenduan areagotutako arrakala sozio-ekonomikoari aurre egiteko, tartean premia bereziko ikasleei eragindakoa. Errefortzurik ba al da?

Lasa: Premia bereziko ikasleentzat, laguntzaile eta espezialistak funtsezko izan ziren konfinamendu garaian, eta orain bueltan ikusi dugu gehiago kostatzen zaien ikasleen arreta zailtzen duela egoerak, zentzumenak mugatzen dituelako, tartean maskara eramateak berak, eta kezkarria da, bai.

Sanzberro: Egoera ez da ona, zailtasunak dituzten ikasleentzat ikasturte arruntetan bideratzen diren baliabideak aurten jarri behar izan direlako beste hainbat hutsune estaltzeko eta aurtengo logistika bereziari erantzun ahal izateko. Premia larrienak dituztenak badute laguntza, baina hain behar handia izan ez arren gertuko jarraipena eta arreta behar dutenak, horiek dira kaltetuenak egoera honetan.

Ibargarai: Gurean egin duguna da itzuleran ikasleak ebaluatu, non diren eta horren arabera nondik abiatu jakiteko. Bestalde, konfinamenduak ikasle batzuen euskarari eragin diola sentitu dugu irailean, nahiz eta ahal genuen gutia egin genuen euskara presente egon zedin etxeetan. Itzuleran, beraz, indarra jarri dugu gai honetan eta burbuila-taldeak osatzerakoan, adibidez, hizkuntza maila izan dugu kontuan, hizkuntza maila ezberdinak nahastuz. Horretarako ere nahi dugu aurrez aurreko eskola, euskarak ez dezan gal.

Gurutz Sanzberro

“Zailtasunak dituzten ikasleentzat ikasturte arruntetan bideratzen diren baliabideak aurten jarri behar izan dira hutsuneak estaltzeko. Horiek dira ikasle kaltetuenak egoera honetan”



Konfinamenduan asko entzun genuen beste aldarrikapen bat: curriculumak, helburuak eta ebaluazioak birplanteatzeko beharra, indarra funtsezkoenean jartzeko. Horrela planteatu al da ikasturte berria?

Ibargarai: Edukia aparte utzita, gutxienez bi hilabete behar izan dira eskolako lan jarrera batzuk berreskuratzeko bakarrik, beraz esango nuke oraindik ez dugula nahikoa aurrera egin horri buruz aritzeko. Hori esanda, ez dut uste berriz konfinatzen bagara Lehen Hezkuntzan behintzat gai berririk landu litekeenik.

Lasa: Programazioak eta proiektuak egoera berrira egokitu ditugu, aintzat hartuta ikasturte berria ez dugula ekaineko errealitatearekin hasi, martxokoarekin baizik, eta Hezkuntza Sailari eskatu diogu curriculumak bete behar horretan malgutasuna izan dezagula, errealitateak hala eskatzen duelako.

Sanzberro: Gu ere egoerara egokitu eta moldatu gara, eta jorratu beharreko edukietan nahiz ebaluazio irizpideetan gutxieneko batzuk jarri ditugu arloz arlo, balizko konfinamendu baten aurrean. Eduki akademikoen gainetik gaitasunak lehenetsi ditugu.

Ikasgelaka edo ikastetxeka irakaskuntza telematikora itzultzen ari garen garaiotan, martxoan baino prestatuago eta bideratuago dago gaia?

Sanzberro: Aurreko konfinamendutik zerbait ikasi dugu, bai, eta funtzionatu zuena eta ez zuena funtzionatu partekatu dugu gure artean. Baliagarri jo ditugun tresnekin online plataforma sortu dugu eta simulakroak egiten ari gara orain.

Lasa: Kontingentzia planean aurreikusia dugu irakaskuntza telematikoa, eta talde bat konfinatzen denean automatikoki aktibatzen da plana, baina ez da batere erraza, martxoko esperientzian eskola osoa ari zelako etxetik, eta modu horretara zegoen antolatuta dena, baina orain eredu hibridoa da, batzuk aurrez aurre eta beste batzuk etxetik ari dira.

Ibargarai: Gu ez gaude hain aurreratuak. Gurasoei galdetegi bat pasa diegu, aurreko konfinamenduan eskaini zen jarraipen pedagogikoari buruz, eta familien oharrrak jasota gogoetak partekatzea dagokigu orain, berriz konfinatuz gero nola ekin erabakitzeke.

Zein dira aurrera begirako kezka eta erronka nagusiak?

Ibargarai: Niretzat kezka handiena li-

Mirentxu Ibargarai

“Gurean azken aldaketa da 6 urtetik goiti maskara eraman behar dutela orain ikasleek; eztabaida handia sortu du gaiak, ez dakigu ikasleek nola hartuko duten eta zein ondorio izango dituen”



tzateke berriz konfinatzea. Irakaskuntza hibrido bat jasan dezakegula uste dut, baina ikasleen jarraipena eta denon arteko harremana aise zailduko lukeela konfinamenduak. Eta erronka da, eze-gonkortasun egoera honetan, Seaskan ditugun hezkuntza ardatzak eta baloreak bistatik ez galtzea, protokoloak protokolo.

Lasa: Gurean ere kezka da konfinamendu orokorra, eta horri gehituko nioke zuzendaritza talde ugari sumatzen den nekea, lana oso intentsua izaten ari baita, eta kolokan daude hainbat eskolatan. Eta erronka, neke horren gainetik ilusioa eta motibazioa mantentzea, aurrez aurrekoari eusteko.

Sanzberro: Behar pedagogiko emozionaleri erantzutea da erronka, orain arte saiatu garen moduan. Hau luzerako doala jakinda, pedagogiaz gu arduratzen garen gisan logistika, antolamendu eta baliabideei dagokionean administrazioarekin elkarlana sustatzea beharrezkoa da, gure beldurra delako ez ote diren berriz ere errepikatuko inprobisazioa, inkomunikazioa eta aldebakarreko erabakiak. ●



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Beste Guernica sutan

San Vicente barrutia (Argentina), 1934ko maiatzaren 18a. Mathilde Díaz Vélez lurjabeak Buenos Airesetik 40 kilometro ingurura zeuden bere lursailetan Guernica izeneko herria fundatzeko eskaera helarazi zion Buenos Aires probintziako Obra Publikoetako ministroari, baita baimena lortu ere. Euskal jatorrikoa izaki, Díaz Vélezek haxe adierazi zuen eskaera horren amaieran: “Azkenik, Guernica proposatzen dut herri berriaren izentzat, Euskal Herriko askatasunarentzat hain esanguratsua den izen horren oroimena herrialde honetan betikotzeko asmoz, eta nire familiaren nahiz Argentinan arrasto iraunkorra utzi duten beste hainbaten arbasoen aberria omendu nahian”.

Hiru urte geroago jatorrizko Gernikan gertatutakoak izen horren oroimena Argentinan eta handik kanpo betikotzen lagundu zuen, zoritxarrez, baina Mathilde Díaz Vélezek bere ahaleginean jarraitu zuen. Guernica berriaren tren geltokiari López Camelo izena jarri zioten, baina 1940an fundatzaileak izena aldatzeko izapideak abiatu zituen. 1948ko martxoan lortu zuen geltokiak ere Guernica izena izatea.

Lur horiek Mathilde Díaz Vélezen familiarenak izan ziren 1859ean enkan-tean erosi zituztenetik. Aurrez beste hainbat jabe pribatu izan zituzten. Eta, hori baino lehen, 1618tik aurrera, frantziskotarrek kerandien komunitate bat ezarri zuten bertan. Beraz, jatorrian,



RADIO RIVADAVIA

URRIAREN 29AN INDARREZ HUSTU ETA SUNTSITU ZITUEN POLIZIAK GUERNICAKO SAIL OKUPATUAK.

lur horietan kerandiak bizi ziren, baina frantziskotarrak iritsi zirenean, 250 besterik ez ziren geratzen inguru haietan. Beste hainbat indigena komunitatekin gertatu bezala, mestizaiak, Europatik eramandako gaixotasunek eta europar kolonizatzaileekin izandako gatazkek jarri zituzten kerandiak galbi-dean. Zehazki, 1586an Rodrigo Ortiz de Zaratek zuzendutako eraso militarrek eman zion kerandien populazioari kolperik latzena; Guernicako fundatzailea bezala, Ortiz de Zarate ere euskal jato-

rrikoa zen, Valladoliden jaio arren, gurasoak bizkaitarrak baitzituen.

Guernicak 80.000 biztanletik gora ditu gaur egun, eta azken aldian komunikabideetan azaldu da. Covid-19ak eragindako krisialdiaren ondorioz, joan den uztailan hainbat familia Guernicako lursailak okupatzen hasi ziren, lurak lantzeko eta bertan bizitzeko. Ofizialki, gutxienez 1.080 familia bildu ziren bertan. Baina urriaren amaieran 4.000 poliziek etxolak suntsitu eta familia guztiak indarrez bota zituzten. ●



Whiskia ura da

Whiskia Erdi Aroan sortu zen, monasterioetako alanbiketan. Baina egungo izena geroago emango zioten.

Fraideek hasieran *aqua vitae* (bizitzaren ura) esaten zioten sortzen zuten edabeari. Denboraz, gaelikoak latinezko

hitz horiek moldatu zituen: *uisge beata* esan zioten orduan likidoari. Aurrerago, abizena galdu eta izenak aldatzen jarraitu zuen; *uisge* zena *usqua* bihurtu zen. Eta, azkenik, *usquatik* whiskirako bidea egin zuen. Beraz, whiskia ura dela esan daiteke, etimologikoki behintzat. ●

Hik Hasik hezkuntzaz hausnartzeko gakoak plazaratu ditu

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Mende laurdena osatu du *Hik Hasi*-k, Lasarte-Oriako Antza inprimategian lehen zenbakia argitaratu zuenetik. Joxe Mari Auzmendi taldearen sortzaile zendu berriak izango zuen hasiera korapilatsu haien kontakizunik. Otsailean eman genion agurra txoko honetan eta orduan kontaktu genituen *Hik Hasi*-ren eta ARGIAren arteko harremanak, euskarazko bi aldizkariak lotzen gaituzten hariak. Joxe Marik ezin 25. urteurreneko ospakizunean egon, baina otsailean idatzi bezala, hariak jarraitzen du eta azaroaren 4an aurkeztu dute, Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean, urteurrena ospatzeko egitaraua. Unea aprobetxatu dute hezkuntzaren oinarrien inguruko hausnarketa kolektiborako gonbitea egiteko "Hezkuntza Adierazpena"rekin.

COVID-19ak eragindako lurrikara honek erdi-erdian harrapatu du hezkuntza (erdi-erdian harrapatu ez duenik bada-

goen ere zalantza dut). Beste arlo askotan bezala, azken hilabeteak protokolei eta neurriei begira dabil hezkuntza-komunitatea, ez da gutxiagorako; baina non geratzen dira pedagogia eta hezkuntza zurrumbilo honetan? Berriz ere hezkuntzaren oinarriak erdigunera ekarri nahian eta "modu baterazlean" eginez, Hezkuntza Adierazpenean *Hik Hasi*-k hausnarketarako zenbait gako planteatu ditu, hezkuntza komunitatea osatzen duten ikastetxe, familia, sare, erakunde eta abarretan datozen hilabeteetan lantzeko gonbitea eginez. "Zoru etiko eta pedagogiko berria behar da Euskal Herriak une honetan dituen hezkuntza erronkei erantzuteko, eta zoru hori finkatzeko, itun sozial bat behar dugu hezkuntzaren inguruan. Horretarako, lehenengo, hausnarketa partekatua behar dugula uste dugu. Hezkuntza Adierazpen honen helburua hausnarketarako gakoak mahai gainean jartzea da. Euskal Herriak behar duen hezkuntza-sistema

inklusibo eta komunitariorako oinarriak xehatzen dira bertan", azaldu du Xabier Sarasua irakasle eta *Hik Hasi*-kideak.

Ainhoa Azpirozek *Hik Hasi*-ren hogeita bost urteotako ibilbidearen errepasoa egin du. Euskal Herri osoko eremuan elkarren berri izateko tresna gisa sortu zela gogoratu du, 1990eko hamarkadan oraindik pedagogia aurrerazaleetan murgildu nahi zutenek ere euskarazko materialaren falta sumatzen zutela, euskal curriculumik eza, bertako argitaletxe urriak...

Behar horiek eta gehiago asetzeko sortu zen taldeak bete ditu hogeita bost urte eta orduko su txiki batzuk itzaliko baziren ere, beste batzuk piztea lortu dute eta ez daukate itzaltzen uzteko asmorik. Mende laurdena ospatzeko egitaraua azaroaren 14an hasiko da, *Natura: eskola bizia* jardunaldiarekin.

www.hikhasi.eus webgunean dago egitarau osoa. ●



NATURAZ INGURATUTA HAZTEN DIREN HAURRAK HELDU ZORIONTSUAGOAK BIHURTZEN DIRA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Danimarkako ikerketak erakusten du ingurune naturalak hiri plangintzan integratzea onuragarria dela buruko osasuna hobetzeko.

Badakigu. Badakizkigun gauzak berritu eta gogora ekarri behar izaten dira maiz. Iaz argitaratu zen ikerketa bat orain iritsi da niregana. Hogeita hamar urtean luzatu den ikerketa da. Ikerlarientzako agerikoa zen gauza bat frogatu nahi zuten. Beraien ustez begien bistakoa da: hiri handietan eta ingurune urbanoetan bizi den jendeak arazo psikiko gehiago izan ohi du. Ez dago argi zein diren arrazoiak eta argitu egin nahi zuten. 1985ean hasi ziren horri buruan buelta eta buelta. Galdera bat argitu nahi izan dute: naturaren edo ingurune berdearen hurbiltasunak eraginik ba al du buru osasunean?

Danimarkan egin dute ikerketatzar hori. Herrialde osoa bost eratako gunee-tan banatu zuten: hiriburua, hiriburu inguruak, gainontzeko hiriak, herriak eta landaguneak. Emaizta espero zena da eta ikerketa argitaratu zutenean idatzi zuten sarrera oso-osorik ekartzeak merezi du: “Hiri inguruneetan haztea nahaste psikiatrikoak izateko arriskuari lotzen zaio, baina horren atzean dauden mekanismoak ezezagunak dira. Berdeguneek buru osasunerako onurak sor ditzakete, eta, beharbada, nahaste psikiatrikoak izateko arriskua murriztu dezakete. 900.000 pertsonari baino gehiagori egindako nazio mailako ikerketa



honek erakusten du berdegune maila txikienarekin hazi diren haurren arrisku psikiatrikoa %55 handiagoa dela, beste arrisku faktore batzuen efektuak independenteak izanik. Haurtzaroan izandako berdeguneen eta arriskuaren arteko lotura sendoa da, eta horrek frogatzen du inguruan berdeguneen presentzia denbora luzean izatea garrantzitsua dela. Gure aurkikuntzek erakusten dute ingurune naturalak hiri plangintzan integratzea ikuspuntu itxaropentsua dela buruko osasuna hobetzeko eta mundu mailan etengabe hazten ari den nahaste psikiatrikoen karga globala murrizteko”.

Beste ikerketa txikiago batzuek erakutsi dute berdeguneen faltak umorea-

ren edota gogo aldartearen nahasteak eta eskizofrenia izateko arriskua handitzen dituela, eta ezagutzen eta garapen kognitiboan ere eragina izan dezakeela.

Danimarkarren ikerketaz Kelly Lambert neurozientifikoak ere esana du: “Hirigintza hobetzea bezain sinplea den ekintza batek gu denon buruko osasunean eta ongizatean eragin handia izan dezakeela iradokitzen du”.

Badakigu eta ikerketak hala dio: naturaz inguratuta hazten diren haurrak heldu zoriontsuagoak bihurtzen dira. Baratzea, lorategia, fruitu arbolak, basoa edo nahi duzuna, baina landarez eta naturaz inguratu, baldin eta natural izan nahi baduzu. ●



ARANGUREN KALEETAKO BERDEGUNE INPERFEKTUEN ONURAK



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Badaki inork txorkoa zer den? Bada, herri eta hirietako kaleetan, zuhaitzak landatutako tokietan dauden lursail txikiak dira txorkoak, gazteleraz *alcorque* deitzenak. Arangurengo Ingurumen Zerbitzuak kanpaina berezi bezain polita abiatu du herritarrei proposamen hau eginez: herriko txorko bat babes-tea beraien gain hartu eta lur zatitxo horretan tokiko landareak landatzea. “Hiriko bioaniztasuna beste ikuspegi batetik lantzeko gogotik atera zen ekimena”, esan du Guiomar Santamaria Solana Arangurengo Udaleko Ingurumen Teknikariak.

DENA EZ DADIN IZAN ZELAI

Hirietako gune berdeak gehienetan belar motzeko zelaiak izaten dira eta teknikariaren ustez, espazio horiek bakarrik egotea ez da ona bioaniztasunerako: “Tokiko landaredia garrantzitsua da, bertako fauna elikatu eta aterpe ematen dielako”. Golf zelai itxurako jardinetara ohituak daude hirietako biztanleak, baina gune berde bat hori baino gehiago dela aldarrikatu du Santamariak: “Tokiko landareei modu naturalean ateratzen uzten diegunean, askori utzitako toki bat dela iruditzen zaio, beste lorategiak bezain polit eta ordenatuta ez dagoelako”. Txorkoetan tokiko landareei bere tokia eman nahi diete kanpaina honekin, gune berde horiek “natura bezain inperfektu” izanen direla aurrez jakinda.

Arangurengo bioaniztasuna zaintzea bada egitasmoaren helburuetako bat, beraz, baina ez da helburu bakarra: herritarren parte hartzea bultzatzea ere bada bultzatzaileen asmoetako bat. “Beharrezkoa da herritarrek horrelako proiektuetan inplikatzeko eta parte hartzea, ekimenari balio handiagoa ematen baitiote modu horretan”.



TXORKOETAN LANDATZEKO HAZIAK BANATU DITUZTE

Hamar bat familiak eman du izena momentuz Arangurengo Ingurumen Zerbitzuak proposatutako ekimenean. Antolatzaileek parte-hartzaileei etxetik hurbil duten txorko bat esleitu eta bertan landatzeko haziak ematen dizkiete: “Hazi nahasketa bat prestatu dugu: batzuek lorea ematen dute eta beste batzuek ez. Loratzen direneta-tik zenbait beroarekin zimeldu egingen dira, eta euriarekin berriz jaio. Mendian landareek duten ziklo naturala segituko dute, nolabait”.

Ekimeneko parte hartzaileen txorkoetan karteltxo bat jarriko dute proiektuko parte direla adieraziz eta herritar gehiagori ekimenaren berri emanez. Txorkoetan landaketak egiteko ideia ez da berria, beste hainbat hiritan horrelako egitasmoak egin izan dira lehenago. Santamariak kontatu duenez, Bartelonan badute antzeko ekimen bat martxan, baina han are landuagoa dute: zuhaitzen izurriei aurre egiteko fauna erakartzen duten landareak jartzen dituzte hango txorkoetan, zuhaitzen izurriei modu naturalean aurre egiteko. ●

EUSKAL HERRIKO AGENDA

AZAROAK 21 / HONDARRIBIA

Jakoba Errekondoren *Etxeko landareak* liburuaren aurkezpena.

11:00etan Endanean.

Antolatzailea: Hondarribiko Udala.

AZAROAK 28 / AIZARNAZABAL

Jakoba Errekondoren liburu berriaren aurkezpena egingo da eguerdian,

12:00etan.

Antolatzailea: Aizarnazabalgo Udala.

ABENDUAK 5 / DURANGO

Durangoko Azokan Jakoba Errekondoren *Etxeko landareak* liburuaren aurkeztuko du.

16:00etan durangokoazoka.eus webgunetik ikusi ahalko da zuzenean.

ABENDUAK 17 / DIMA

Jakoba Errekondoren liburu aurkezpena.

Lekua eta ordua zehazteke.

Etxeko landareak liburuaz aipuk



“Zorionak! Liburu ederra itxura (argazkiak, maketazioa, ikonoak..) eta mamiz. Goxamena halako liburu bat euskaraz irakurtzea. Laguntzaile paregabea!”

Goizargi Lacunza, Atarrabiako Pagotxa loradendako jabea

“ ”

Automatikoki gutxiesten da literatura femeninoarekin lotzen den guztia

Uxue Alberdi

Uxue Alberdiren (1984, Elgoibar) azken literatur lana berriki atera da inprentatik. *Dendaostekoak* (Susa, 2020) du izenburu, eta bertan Elgoibarko Pitxintxu dendatik mintzo zaizkigu Izaskun eta Mari Jose, bi narratzaile nagusiak. Hitzordua egiteko deitu diogunean, liburuaren bidez ezagutu dugun dendaostean harrapatu dugu idazlea. Aitortu digunez, bertsolari eta idazle gisa eskaparatean egon ohi den arren, gustura erretiratzeko da dendaosteko lanera. “Egia da badaukadala bulkada bat sortzekoa, beti dendan ariko banintz ez litzatekeena asetuta egongo; baina kontrapartida moduan pila bat elikatzen nau”, diosku. Getarian batu gara liburuaz jarduteko, *Kontrako Eztarritik* lanagatik Euskadi Saria jaso eta pare bat egunetara.

“Hibrido sailkaezin” gisa deskribatu duzu *Dendaostekoak*, baina sailkaezin denari eman diozu izena eta izana: kronika literarioa. Idazketaren munduko zenbait arau apurtzera datorren lana da?

Ez dut uste. Nire helburua behintzat ez da izan norma haustekoa, edo ez dut aldarte transgresore batetik idatzi. Gehiago dauka jaso nahi izatetik liburuan jasotzen den errealtateari sumatzen diodan taupada, arima edo aldarte, fidela izango zaion formatu batean. Gorputzak ez zidan fikziorik eskatzen, agian gertukoegia zaidalako kontatzen den istorioa, batez ere kontalariak. Egia esan, Izaskun eta Mari Jose narratzaileak elkarrizketatzen hasi nintzenean, ez nekien zer egingo nuen jasotako materialarekin. Baina segituan konturatu nintzen literaturtasuna behar nuela inplikatzeko, ez nuela ustezko kazetaritza objektiboaren edo ohiko kronikaren bidetik joan nahi: “Pitxintxu jaio zen 1978an, gero hau pasa zen, gero bestea...”. Iruditzen zait bizitza ez dugula horrela sentitzen.

Nahiz eta narratzaileek kontatutakoa idatzi dudan eta ez dudan ezer asmatu, nik forma eman diot jasotako guzti horri. Eta hor badago sentitze bat, edo sentitze bat hitzetara ekarri nahia. Denda horretan nahasten ziren jarduera ekonomikoa, familia egitura, senitartekoen harremanak, maitasuna, sexua, adiskidantza, bizitzeko hainbat modu, kalea, nire bi-

zitzan eta haurtzaroan oso presente egon den ibaia... Sentitzen nuen hori guztia jasotzeko gogo: natura, oiha-lak, ibaia, garai politikoak, eta batez ere pertsonak edo jendetasun modu bat. Eta forma hau aurkitu nion. Ez da nonbait ikusi eta neureganatutako eredua. Arian-arian josten hasi nintzen oso ondo nora zihoan ez nekien zerbait eta bukaerara arte ez genion izenik jarri egiten ari nintzen horri. Egia da ez dudala ikusten erabat sailkatuta generoen definizio ohikoan. Ez nuke esango ohiko kronika denik, ezta ohiko nobela ere. Kontakizun bat da, ez dena fikziozkoa baina literarioa izan nahiko lukeena.

Herri honen eta konkretuki Elgoibarko herriaren azken lau hamarkadak jasotzen ditu liburuak, garai konbultso eta ez hain konbultsoak barne. Ohituta gaude beste toki batzuetatik egiten historiaren errepasoa, ez dendaosteetatik. Ematen du errealtatea eta historia behatu eta interpretatzeko bestelako perspektibarik.

Ari gara seinalatzen zer kontatzen den eta zer ez, zeintzuk diren ageriko eta ezkutuko historiak, zein subjektu diren historian agertzen direnak eta zeintzuk ezkutuan gertatzen direnak... Eta horrekin guztia-ekin batera, iruditzen zait nondik kontatzen den ere oso garrantzitsua dela, ikuspuntuak berak markatzen duela ikus daitekeena. Zein gorpu-



tzetatik, ahotsetatik, klase sozialetatik, ingurune geografikotatik edo garaitik kontatzen duzun, kontatu dezakezuna diferentea da. Iruditzen zitzaidan denda bat izan zitekeela oso ikuspuntu egokia eman zezakeen tokia, hainbat arrazoiengatik. Batetik, lotuta dagoelako eguneroko igurtziari eta herriko jende arruntaren arteko harremanei; denda ez da goi-bilerak egiten diren lekua, ez da lider politiko edo teorikoak biltzen diren lekua, eta askotan oso toki feminizatua da. Eguneroko behar txikiei lotuta dagoen tokia da, batez ere Pitxintxu bezalako denda bat. Aldi berean, nik umetatik ezagutu dudana denda horrek, normalean beti ditu ateak zabalik, eta hor hainbat gauza gertatu dira eta ger-

tatzen dira oraindik. Jende asko sartzen da, eta iruditzen zitzaidan izan zitekeela oso ikuspuntu egokia hitz egiteko garai politikoez, azkenengo lau hamarkadetan egon diren fluxu ezberdinez. Egokia iruditzen zitzaidan bezala hitz egiteko jendeaz, ekonomiaz –nola gastatzen duten batzuek, nola besteek; nola aldatu den dirua gastatzeko modua...–, literaturaz –ze literatura klase saltzen zen lehen, zein orain; nolakoa den liburuaren industria, eta abar–, musikaz, bezeroez, naturaz, familiaz... iruditzen zitzaidan denda foku interesgarria izan zitekeela, eta are interesgarriago bilakatzen zuela kontakizuna bertan diharduten bi pertsonen egiteak. Orain arte eduki ez ditudan erronkak jartzen zizkidan.

Zein erronka?

Liburuko narratzaileen diskurtsoa ez da diskurtso jasoa, beren hizkera ez da poetikoa. Ez dute hitz egiten modu poetikoan, esaten dituzten gauzak ez dira teoria zorrotzak, ez dago ia esaldi konposaturik, ez dago metaforarik liburu guztian. Hargatik, literaturtasuna beste era batean bilatzera eraman naute, ezinbestean. Iruditzen zait horregatik sortu dudala forma edo hibrido hau, beste bide batzuk bilatu behar izan ditudalako.

Irakurle talderen batean komentatu zidaten *Jenisjoplin* ez zela literatura, ez zegoelako ia esaldi ekiboko bat bera ere. Nolabait sinpleegia zela hizkuntzaren egituraz, edo literaturtasunean. Orduan pentsa, liburu honi buruz ez dakit zer esango didaten. Hemen dena dira esaldi laburrak, ez dago menpeko perpau-sarik. Baina edozelan ere, zeri deitzen diogu literatura? Lan honek horretaz pentsatzeko ere ematen dit aukera. Leire Lopez editoreak aipatzen zuen liburu bakoitzak, bere existentziarekin, egiten duela literaturaren proposamen bat; ez dagoena zertan kontraposizioan beste definizio batzuekin. Nik uste betikoaz ari garela: proposatzen denean gorputz, jende, edo ikuspuntu berri bat, ez du zertan aurrekoa ukatu, baina erreibindikatzeko du bere izateko lekua edo modua. Etengabe galdetu diot nire buruari: hau zergatik ez da ba literatura izango? Terreno zingiratsu horietan ibili naiz, gustura egia esan.

Liburuak hitz egiten du kontu pertsonal eta politikoez, aitortza gutxi egiten zaion eremu pribatutik, eta emakume perspektibatik. Bada nik uste egiteko modu patriarkal batekin haustea. Gizonen mesfidantza nabaritu duzula aditu dizut. Ez da izango horregatik?

Badaude gai batzuk garrantzitsutzat ditugunak eta bestelako interesa sortzen dutenak, baina kasu honetan sentitu dut halako mesfidantza bat inguru literario-ko gizon batzuen partetik. Batetik, nik uste, narratzaileak senideak ditudalako. Liburua amari eta izebari buruzko nolabaiteko kronika sentimentala edo omenaldi pertsonala izango balitz bezala. Eta ni ere kontziente nintzen horrek bere arriskuak zeuzkala, ariketa etengabekoan aritu naiz ez zedin izan zerbait pertsonala, garbi neukan ez nuela hori egin nahi. Borroka horretan ibili naiz; kanpotik jasotzen nuen mesfidantza edo beldur edo erreparo horren

eta mesfidantza integratuaren artean. Material asko neukan eskura eta sarri neurtu behar izan dut material horren garrantzia literarioa. Eta pozik nago zentzu horretan kasu egin diodalako senari. Liburua argitaratu baino astebete lehenago dardarka nengoen ez nekierako nola hartuko zen, literaturtasunik aitortuko ote zitzaion. Nahiz eta beste alde batetik pentsatzen nuen: “Baina noren aitortzaren zain zaude?”.

Eskertzen diot asko Leireri editoreari, berak ez duelako segundo bakar batean ere zalantza egin eta etengabe esan didalako sinisten zuela liburuan eta gainera ilusio extra bat egiten ziola zuk esaten duzun horregatik: hein batean jartzen di-tuelako dardarka literaturaz dauzkagun hainbat uste edo zimentu, bai gaien alde-tik, bai formaren aldetik, noren istorioak eta nola kontatzen dituen...

Ausardia puntu batekin egindako lana ere bada orduan. Arriskuak zituela jakinik ere, eraman baituzu azkenerraino.

Lehenagoan Joxean Agirrerekin egin genuen irakurle talde bat eta esan zidan halako zeoz: “Joe, zeinen barregarri gera zintezkeen, eta zeuzkan arrisku guztiekin oso ondo geratu da”. Eta ni kontziente naiz arrisku batzuk badirela errealak, ze oso gertuko materialarekin ari zarenean zuri ere distantzia hartzea exijitzen dizu

egiten ari zarenak. Baina hala ere, zergatik da arriskutsua istorio batzuk kontatzea? Bada ez zaiolako ematen batere garrantzirik literatura femeninoarekin lotzen den guztiari. Ze interes edukiko dute brodatuek, jostintzak, bi andre, bi ahizpen arteko harremanak? Automatikoki gutxiesten dira emakumeen esperientzia, emakumeen bizitzak eta emakumeen hitza, eta horri ez diozunean uko egiten, badakizu arrisku batzuk daudela, baina badakizu baita ere badaudela deskubritzeko eremu pila bat, niretzako oso interesgarriak direnak. Orduan, nik nahi nuen hau egin, eta egin dut.

Liburuko bi narratzaileen ikuspuntua ikuspuntu ezohikoa da, oso narratzaile gutxi dauzkagulako perfil horretakoak: 62 eta 64 urteko bi emakume, ez direnak *a priori* garrantzitsuak, ez dutenak egin ezer apartekorik. Baina hala ere, nik ikusten diot interesa beraiek hainbat arlotan kontatzeko daukatenari; bai aipatu ditugun gai horiei guztiei dagokienez, baina baita beti transmititu izan didatelako beraien arteko ahizpatasun horretan badagoela izugarrizko indarra, bizi-poza eta bizitzeko artea. Beti pentsatu izan dut badakitela bizitzen. Orain asko hitz egiten dugu bizitza duinari buruz, eta iruditzen zait teoriarik egin gabe ere, beraiek hainbat gako praktikatzan dituztela. Beraiek eta inguruak, hor agertzen den gizarte modu horrek.

Liburuan ez da esplizitatzen, baina aipatu duzunez pertsonaia nagusiak ama eta izeba dituzu, eta hortaz, denda eremu etxetiarra. Alabaina, komentatu duzu lana ez dela beraiei egindako omenaldia ezta antzerako ezer ere. Zerk eraman zaitu beraietaz idaztera?

Elgoibarren egin genuen aurkezpenean sentitu nuen beharra hori zertxobait azaltzeko, eta komentatu nuen bi gauza ezberdin direla idazlearen bulkada pertsonala –zerk eserarazten duen istorio bat idaztera ordutan eta ordutan– eta liburua, azken emaitza. Bulkada pertsonalari dagokionez, nik uste lan hau nostalgia antizipatu batetik sortzen dela; orain bi urte, dendak berrogei urte bete zituenean, konturatu nintzen jaioterriarekin eta haurtzaroarekin lotzen ninduen azkenengo soka etetera zihoala laster. Jaioterriarekin daukadan lotura sendoena denda da; dendak sinbolizatzen du nire iragana, ama eta izeba, amama, ezagutu ez nituen arbasoak ere dendari lotuta sentitu izan ditut nik. Eta bat-batean, hori joan egingo dela ohartzean, liburuan bildutakoa jasotzeko beharra sentitu nuen.

Nik behintzat behar dut inplikazio emozional handia kontatzera noanarekin, inportako ez balitzait edo ez banekuka helduleku emozionalik, uste dut ez nukeela edukiko gogorik lan literario



bat egiteko horrekin. Baina inplikazio hori sentitu nuenetik jakin nuen literatura behar nuela kontaketa egiteko ni eroso sentiaraziko ninduen moduan, eta nire iritzitan hor uzten dio omenaldi bat izateari, niretzako zer-bait izateari. Galdetu izan didate “baina zer da, omenaldi pertsonal bat?” edo “zer da, kronika sentimental bat?”, eta batzuetan ausartu naiz kanporatzen eta beste batzuetan ez, baina nire buruan beti zegoen erantzun bera: “Bueno, balio literario guztia kentzen badiozu, bai”. Alegia, uste dudala gauza bat dela zein den idazlea zerbait idaztera daraman indarra, eta beste gauza bat dela horrekin egiten dena. Zu egon zaitezke oso maiteminduta baina horrek ez du maitasun poema onik bermatzen; aitzitik, izorratu egin ditzake. Ze literaturak distantzia beharrezkoa du. Ni saiatu naiz asko mugitzen nauen horrekin literatura egiten, literarioki funtzionatuko duen artefaktu bat armatzen. Hori izan da erronka.

Bi narratzaileen izaerari egokitzen zaio idazkera. Bizia, erritmoduna, ornamentu gutxikoa, zuzena eta argia da protagonisten hizkera. Testuak transkripzioetatik datoz, asko dauka beraien hitz egiteko eta izateko modutik. Hala ere, sortu behar izan dut hizkuntza bat bi euskaldun berriren neurrikoa, beraiek ez baitira kontalari onak, beti ere kontalari onaz daukagun ohiko pertzepzioaren arabera. Aldi berean oso kontalari onak dira kontatu egin nahi dutelako, eta oso espresiboak

direlako; hizkuntzan eduki ditzaketen hutsuneak betetzen dituzte zaratekin, onomatopeiekin... batek hasitakoa besteak jarraitzen du, batzuetan hizkuntza asmatu ere egiten dute. Saiatu naiz hori ere jasotzen. Nahi nuen testuak eta hizkuntzak erakutsi zezatela herri honetako jende askoren hizkuntzaren dendaostea, nahi nuen ondokoa planteatu: zergatik hitz egiten du hitz egiten duen bezala pertsona batek? Hori ere ez baita neutroa, hizkuntza ere eraiakia da eta dago generoarekin, klase sozialarekin, inguru geografikoarekin, diglosia bat bizi duen herri baten parte izatearekin... hainbat gauzarekin osatua.



Marx eta mertzeria, josteko makinak eta diskoak, kontrakultura eta tradizioa nahasten zituen koktel lehergarri modura zabaldu zuten Pitxintxu 70eko hamarkada amaieran. Brodatzeari eta josteari muzin egin gabe, horiek ogibide gisa hartuta, baina itotzen zituzten joskurak errematatzen ziharduten bi emakume ageri zaizkigu; tradizioaren eta garai berrien arteko oreka bilatzen arituko bailiran.

Beraiek ez diote uko egiten ezeri. Jostea eta brodatzea ez da zerbait lotsagarria beraientzat, ikasi dutena da eta gainera diote inoiz ez direla kexatu, gustura egin duten eta egiten duten zerbait dela. Baina aldi berean eman diote beraiek nahi zuten lekua, eta ez diote uko egin irakurtzeari, beren burua janzteari, bes-

te gauza batzuk egiteari, eta niretzako inportantea dena: dibertsioari. Zeren badaukat sentsazioa batzuetan borroka batean sartzen garenean ematen diogula halako zentralitatea eta garrantzia, arintasunez mugitzea ahazten zaigula. Eta beraiek lortu dute arintasuna mantentzea, eta niretzako hori ikasbide handia da.

Liburuaren azken orrietan taula bat dago, 1978an Pitxintxu ireki zutenean Elgoibarko San Frantzisko kalean zeuden denden inbentarioa dena, eta horien tokian gaur zer dagoen jasotzen duena. Garaiekin batera emandako komertzio motaren eta herriaren eraldaketa islatzen du, ezta?

Adierazten du norentzako herriak sortzen ditugun. Higiezin-agentziez, asaguru etxez beteta dagoen kale batean jende batek jada ez dauka lekurik. Iru-ditzen zait 78ko haiek jende guztia sartzeko moduko lokalak zirela, ogia edo egunkaria edo ikatza saltzen zuten eta hori bazen jende ororentzako. Narratzaileetako batek esaten du marka batek etxe bat erosten duenean, eraikin horrek uzten diola herriarena izateari, paisaia bera erosten dutela. 78ko paisaia horretan leku gehiago zeuden etxeko zapatiletan jaisteko modukoak. Ez du edozein lekuk edozertarako balio. Zeren ez zara sartuko Mapfreko dendaostera filosofiaz hitz egitera, ezta?

Eraldaketa horretan taberna-zuloak ere desagertu dira, jada ez dago ezkuturako lekurik. Agian trapitxeo txikia desagertu da, baina hor badira beste mugimendu batzuk... Itxura txarra ematen duen “zikina” kendu da nolabait, baina baliteke egungo espazio modernoek erakusten duten distiraren atzean dagoen zikina handiagoa izatea. ●



ZALDI URDINA

IGOR ELORTZA eta UNAI ITURRIAGAREKIN IDATZIA
Zuzendaritza: XIMUN FUCHS eta AINARA GURRUTXAGA
Aktoreak: ANDER LIPUS - OLATZ BEOBIDE - URKO R. PESCADOR
MIREN ALCALA - MANEX FUCHS - EDURNE AZKARATE - OIER ZUNIGA

AXUTI • ARTEDRAMA • DEJABU
www.zaldiurdina.eus

EMANALDIAK

AZAROA	ABENDUA
13 LEIOA	1 IRUN
21 ATARRABIA	2 EIBAR
27 ERMUA	4 DONOSTIA
	5 ZIZUR NAGUSIA
	11 TOLOSA
	13 OION
	19 ASTIGARRAGA
	27 LEITZA



LIBURUA

Zer da ama izatea?



EMAKUMEAGANDIK JAIKAK. AMATASUNA ESPERIENTZIA ETA INSTITUZIO GISA

EGILEA: ADRIENNE RICH
ITZULTZAILEA: MAIALEN
BERASATEGI CATALÁN

TXALAPARTA, 2020

AMAIA ALVAREZ URIA

2020ko apirilean kaleratu du Txalpartak Maialen Berasategi itzulitako eta Adrienne Rich poeta eta pentsalari feministak ia 50 urte lehenago idatzitako "amatasuna"-ri buruzko lan mardula. Egungo pandemiaren berrogeialdi betean, alegia. Hain justu, erdi mailako klaseko bikote heterosexualek egonkor batzuek erabaki zutenean umeak egiteko unea izan zitekeela.

Lau urtez ikertzen eta idazten jardun zuen Richek, ikuspegi feministatik amatasunaren gaia deseraikitzen eta hamar kapitulutan heldu dio horri: bere bizipen pertsonaletik abiatzen da hiru semeren ama izateak sorrarazi dizkion gatazka, kontraesan eta minak adieraziz. Horren ostean amatasunaren eta heterosexuallitatearen instituzioen arabera amaren betebeharrak zein den esplizitatzen du.

Segidan, aurrehistorian Ama Jainkosari egiten zitzaion gurtzaren eta patriarkatuak emakumeak eta amak kontrolatzeko sortutako arau eta zigorren berri ematen du medikuntza, literatura edo erlijio-testuetako pasarteak ekarri. Gainera, erditzeaz eta abortuari buruz dihardu, ama-semea eta ama-alaba harremanetan sakonduz. Amen biolentziarekin amaiera ematen dio liburuari.

Simone de Beauvoirren emakume izaerari buruzko saiakeratik 50 urtera begiratu dio ama izaerari egile honek, hain justu AEBetan diferentziaren feminismoa indartzen ari zen garaian. *Herstory* baten beharraz ari da, eta ahizpatasunaz, denak baikara alaba-ama; baina baita ama potentzial bezala hartuak garenok burua eta gorputza deskolonizatzeko eta kontzientzia hartzeari

buruzko premiaz ere.

Bere ustez, emakume guztiak gabil-tza "maitalanetan", hortaz, ama rola jotzen dugu. Ama direnen eta ez direnen arteko polaritatea faltsua dela dio, eta menpeko eta sufritzen nahi gaituen amatasunaren instituzioa suntsitzeko eta biziaren sorkuntza eta euskarria bestela eraikitze beharra aldarrikatzen du.

Iaz argitaratu zen *Salud feminista* lan kolektiboan gai honi beste begirada bat eman zioten, queer, trans eta crip ikuspegietatik osasun sexual eta erreproduktiboari eta gorputzaren subiranotasuna edo justizia erreproduktiboa kontzeptuak proposatuz. Baina bi lanak horrela laburtu daitezke: "Feminista izatea gorputzarekin etengabeko elkarriketa izatea da" (Marta Dillon). ●



MUSIKA

Beti aurrera, grinaz



JUANTYO EGAÑA / EUSKADIKO ORKESTRA

WAGNER ETA MOZARTEN LANAK

EUSKADIKO ORKESTRA
SINFONIKOA.

ZUZENDARIA: MICHEL
TABACHNIK. BAKARLARIA:
RINAT SHAHAM MEZZOA.

GASTEIZKO PRINCIPAL
ANTZOKIA, AZAROAK 2

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Plazera da musika onaren bidez ordubetez errealitate honetatik ihes egin ahal izatea. Eta hori da Euskadiko Orkestrak bere abonu-kontzertuen bidez ahalbidetzen diguna. Murrizketa gehiagorekin edo gutxiagorekin, aforo handiagorekin edo txikiagorekin, baina beti gogo berarekin. Eta publikoaren aldetik, beti gozatzeko prest.

Lerro hauetatik, eskerrak eman nahi dizkiet Euskadiko Orkestrari eta kultur ekimenak bultzatzen dituzten erakunde guztiei, garai latz hauek atseginagoak izan daitezen posible egiten dutelako.

Orkestraren bigarren abonu-kontzertua gozoki borobil bat izan zen, laburra, landua, eta sorpresa atsegin batekin: Rinat Shaham mezzo israeldarraren interpretazio distiratsu eta beroa.

Wagnerri eskainitako programak konpositore honen bi lan hunkigarri bildu zituen: *Sigfriden idilioa* eta *Wesendonck Lieder*.

Sigfriden idilioa bere bigarren emaztea zen Cosimarentzako urtebetetze opari bezala konposatu zuen Wagnerrek. Lan hau, 1870eko abenduaren 25ean, Egu-berri goizean, Züricheko Tonhalle Orkestraren ensemble txiki batek jo zuen lehen aldiz, bere etxeko eskaileretan, Suitzako Tribtschen izeneko herrian. Horrexegatik, *Treppenmusik* edo eskailera-musika izen-datu zuen pieza. Euskadiko Orkestrak konposizio honen interpretazio zehatza eta delikatua egin zuen.

Jarraian, orkestrak *Wesendonck Lieder* interpretatu zuen, non protagonista nagusia Rinat Shaham abeslaria izan zen. Bere ahotsak wagneriar konpasak bibra-

rarazteko egin zirudien. Tinbre iluneko ahotsa du Shahamek, baina oso eder eta sakona, dentsoa. Halere, ahotsaren gainetik, Shahamen bertute nagusia interpretatzeko gaitasuna da, adierazkortasuna. Liederren arteko erregistro eta jarrera aldaketak izugarriak ziren. Xarma, grina, beldurra, sentimendu horiek guztiak agerian utzi zituen hain modu sinesgarrian abesten duen mezzo honek.

Programa Mozarten sinfonia ospetsuenetako batekin amaitu zen. *35. sinfonia*, *Haffner* lanarekin Salzburgoko musikariaren heldutasun garaia hasten da. Sinfonia honetan bere eboluzio harmonikoa antzematen da, baita Bachek bere obran izan zuen eragina ere. Euskadiko Orkestrak eskainitako bertsioa freskoa, ñabarduraz beterikoa eta indartsua izan zen. ●



Pilotalekuko hotsak

MARTA SENDIU

Murgia pilotalekua antzoki bilakatu da gaurkoan. Musikariek eta haien instrumentu eta ahotsek ordezkatu dituzte pilotariak. Ez da entzuten larruzko pilota gogorrek horma berdearen kontra egiten duten soinua, baina haren ordezkariak, bateria, kontrabaxua eta biolina sumatzen dira. Ruper Ordorika eta hiru taldekideek osatzen dute gaurko laukotea, baina esku pilotako partiduak ez bezala, denak batera doaz, ez dago bikoterik, laurak bat dira.

Pilotaririk gabeko frontoiak zilarrezko atrezzoak jantzi du eta lurra kablez eta fokuz josita dago. Ordorika hainbestetan lagundu duen zilarrezko olanak estaltzen du Zuiako frontoiko ezker horma. Ez dakit doakotasunaren ondorioz den edo kultur egarria asetzeko beharra, baina harmailak jendez lepo daude. Hori bai, batez besteko adina administrazioan lan mugagabea dutenak dira.

Sarrionandiaren Hazparneko zapatararen kondairarekin eman diote hasiera. Martin Larralde eta bere aitaren arteko harreman gaiztotuari egiten dio erreferentzia bertso horrek. Lapurdiko

larre berdeak, teila gorriko etxe zuriek eta jendarme autoek definitzen dute mito honen protagonistaren ingurua, baina galeretako heriotza ere aipatzen du.

Esan gabeko arrazoia abestiarekin eman diote jarraipena gau-emanaldia-ri. Galderaz betetako, baina erantzunik gabeko kanta, ziurgabetasunez betetako udazken arraro honetan gure etxetako leihotetan sartu nahian dabilzan itxaropen argi printzei zuzendutakoa. Udazkenarekin batera *Hamar negu* eta *Bizitza eder denean* kantak agertu dira segidan.

Abesti batetik bestera Jean Phocasek behin esandako hausnarketa luzatu du Ruperrek: "Pilotariek ez badute antzokietan jokatzeko, zergatik jo behar dugu musikariok frontoietan?". Euskal Herrian normalizat edo ohikotzat hartzen da kontzertuak edo antzezlanak pilotalekuan egitea, baina ez al dugu antzoki nahikorik kalitatezko kontzertuak duintasunez ikusi eta entzuteko?

Gogoeta botata *Lurrean etzanda* eta *Mare Nostrum* abestiak etorri dira. Bizitza eta heriotzaren inguruan mintzo dira bi kanta hauek eta zerutik urrun

RUPER ORDORIKA

NOIZ: urriak 3

NON: Murgia pilotalekua

bizitzea hobe dela adierazten dute. Bere izenari men egiten dion abestiak, hots, *Mare Nostrum*ek heriotzaren eta patuaren lekuko isila izateaz gogaituta dau den horien inguruan dihardu.

Bernardo Atxagaren hitzek frontoia bete dute. *Hautsi da Anphora* diskoko *Fas Fatum* abestirako Arkaitz Minerrek gitarra ordezkatu du mandolinarengatik. Segidan, *Aingeru guardakoa* eta haren aitona egindako *Eliasek etxea* etorri dira. *Hiriak* abestiarekin biolina hartu du Miner disziplina anitzeko musikariak, eta munduko hainbat hiri-burutarako bidaiari amaiera emateko *Haize garizumarekin* bueltatu gara gure aberrira, sorlekura.

Pandemiaren ondorioz ligatzeko zailtasunei aurre egiteko Hiru Truku taldearekin abestutako *Zazpi nobio* kanta ekarri dute gogora. Bertso zaharrekin batera Ruperren perletatik falta ezin ziren *Zaindu maite duzun hori* eta *Ene begiekin* eman diote amaiera kontzertuari. Ordorikaren esperientziak, hitz jarioak eta doinu lasai eta herrikoiek azken hilabetetako egunero-kotasun ziurgabetik urruntzen lagundu dute, tarte batez bada ere. ●



Hitz gezidunak

AGINTARITZAK EZARRITAKO ARAU ----- IRAKATSI	ABERE ZURI- BELTZ ----- ATSEGIN EMATEKO UKITZEA	SEME- ALABAK DITUZTEN EMAKUMEAK	EUSKAL HERRIA ----- GARAI, DEN- BORA	ERABAT, TXIT ----- ARRANTZA- TRESNA	LABEKO PALA ----- BETI PRESAKA DABILENA	ARIN, LASTER (BI HITZ) ----- PERTSO- NAIAREN ABIZENA
		SIKATUTAKO MAHATSA ----- EUSKO ALKARTASUNA				
GINEAKO BIZTANLE ----- GIZARTERATU			MIRABE ----- TONA			
					GALDEZKA ----- OSMIOAREN IKURRA	
OSPAKIZUN, FESTA	MODU ATZIZKIA ----- PERTSO- NAIAREN IZENA				INTERJE- KZIOA ----- BETI	
		ADISKIDETU			BIZKAIKO BADIA ----- EURIRIK GABEKO EGURALDI	
SINDIKATU ABERTZALEA ----- GALDE PARTIKULA						
	ANPEREA ----- ETORRI ADITZAREN INFINITIBOA				ARNAS EZAK HILA ----- KOILARA HANDI	
EUSKALTEGI SAREA ----- INDAR MAILA		NANOTESLA ----- OSO, ERABAT		...VICIOUS, PUNK ----- GOR	AZKEN LETRA ----- ERREP, ATEA JOTZEAREN ONOMATO- PEIA	ISLANDIAKO DOMEINUA ----- DAUKAT (AL- DERANTZIZ)
						HIDROGENOA ----- IDI HITZ- ELKARKETAN
EZKONSARI ----- PERUKO HERRITAR		UBELA, ODOLBILDUA ----- AREA				
				KIDE EGIN		

Sudokua

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO
ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3
KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

	6		3		4		1
		7		1	6		3
		8		4			
	4				3		
6							4
		9				6	
			1		9		
2			9	8	5		
7		6		4			2

5x5

ZE HARRETARA ETA GOITIK BEHERA,
HITZ BERA.

- Ote eme
- Zakar, ezatsegin
- Urtearen seigarren hil
- Kategoria, neurri
- Erne

EBAZPENAK

- OTEME
- TAKAR
- EKAIN
- MAILA
- ERNAI

8	7	1	5	4	3	6	7
9	4	5	7	8	6	3	2
3	1	1	7	8	6	3	2
7	3	6	2	9	1	5	8
1	8	9	4	2	3	7	6
1	7	3	8	5	8	3	2
6	9	3	8	5	2	1	4
5	4	2	6	7	1	3	8
3	1	8	7	6	9	4	5
4	2	7	5	1	6	8	9
9	6	5	2	3	8	4	7

P	E	R	U	T	A	R	K	I	D	E	T	U
D	O	D	O	L	E	O	L	I	R	I	A	V
I	N	N	I	T	S	I	T	A	E	H		
V	A	K	N	S	Z	I	S					
V	L	V										
B	V	L										
I	A	V										
R	E	R										
O	R											
B	E	R										
G	I	Z										
H	Z	I										
L	P	A										

Nahia Zubeldia Arozena

SENTSIBILITATEDUN
ITZULTZAILEA



EZ NAIZ AUTOMATA IZANEN

Itzulpengintza interpretazioa ere badela defendatzen du, eta beharrik! Argi du ez dela izanen itzultzaile automata, sistematikoa. Bere ibilbidea ezagutzen duenak, badaki hori hala izatea ezinezkoa dela. Sorkuntza eta kulturgintza mundutik heldu baita Nahia Zubeldia Arozena. Bere itzultzaile lana entzun edota irakurtzeaz gain, epe laburrean bere poemak ere irakurri zein entzun ahal izanen ditugu. Euskal Kultur Erakundeak, CPIE Euskal Itsas-bazterrak eta Euskal Idazleen Elkartek hamargarren urtez antolatu duten euskal idazle egonaldia irabazi baitu. "Gitarra eramanen dut, beldurra ematen baitit bes-tela. Poema zenbait musikatu nahi nuke, ondoren Lumi taldearekin disko bat ateratzeko", azaldu digu. Beha izanen gara.

"Uste dut itzulpengintza desagertu, eta zuzentzaile bilakatuko garela"

Musika esparruan da ezaguna bereziki Nahia Zubeldia Arozena ziburutarra (1982, Donibane Lohizune). Unama eta Lumi musika taldeetako kide eta sortzaileak, ordea, itzulpengintza du lan esparru. Kezkaz begiratzen dio etorkizunari, itzultzaile automatikoen garapen azkarra dela-eta. Argi du ordea bere bidea zein den: sentimenduarekin eta sentsibilitatearekin soilik egin daitekeen itzulpen esparruan kokatzen du bere burua, makinek –momentuz behintzat– ez baitute pertsonok soilik bermatu dezakegun balio erantsi hori.

 AITZIBER ZAPIRAIN  IRANTZU PASTOR

Itzultzailea zara, ogibidez ala afizioz?

Ofizioz naiz itzultzailea. Hala ere, ohartzen naiz lanetik kanpo ere beti nabilela, oharkabea bada ere, ikusten ditudan afixetan, oharretan, azpitu-tuletan... itzulpena ongi eginga ote dagoen so. Bai, ofizioz naiz itzultzaile, baina maite dut egiazki egiten dudana.

Nolatan murgildu zinen itzulpengintzan?

Hasiera batean ortofonista (logopeda) izateko asmoa nuen. Hizkuntza zientziak ikasi nituen Bordelen. Askok gozatu nuen hango ikasle bizitzaz, eta egia esan, aski lan gutxi egin nuen. Baina hasitakoa amaitu eta lizentzia lortu nuen. Ortofonista konkurtsoa, aldiz, ez. Bat-batean entzun nuen itzulpengintza fakultatea zabaldu zutela Gasteizen, eta ez nuen bi aldiz pentsatu. Ordurarte ikasitakoaren hainbat irakasgai baliokidetu zizkidaten. Berehala ohartu nintzen hautu ona egin nuela. Oso interesgarria iruditu zitzaidan. Zinez nik nahi

nuen lanbide horretan aritzeko, ahalik eta onena izateko, aplikatu nintzen. Oso oroitzapen onak ditut.

Ikasle garaiko oroitzapen onak, gustuko lana... baina etorkizuna?

Egia esan ez dakit nondik joko duen itzulpengintzak. Itzultzaile automatikoak asko hobetzen ari dira. Egunetik egunera eskaintzen dituzte aurrerapenak. Zorionez, oraindik badute bidea egiteko, euskara pittin bat korapilatsua zaie, beraz badugu margen pittin bat. Aitortu behar dut mesfidantzaz begiratzen diodala egoerari. Aurrerapen teknologikoak jauzika egiten dira, dena biziki fite doa. Uste dut bururaino heltzen direnean, egungo itzultzaile lana desagertu eta zuzentzaile bilakatuko garela. Makinek itzulitakoa zuzentzea izanen da gure lana, azkenean; eta nik hori ez dut batere maite. Ez dut inolako asmorik lan administratiboak soilik zuzentzeko edota bilkuren bilduma hutsak egiteko. Bada beste atal literarioago bat antzerkigintzan, liburugintzan, eta horiek



"BADA BESTE ATAL LITERARIOAGO BAT ANTZERKIGINTZAN, LIBURUGINTZAN, ETA HORIEK PERTSONEN SENTSIBILITATEA BEHAR DUTE ITZULPENA ONA IZAN DADIN, BERAZ, HORRETAN MURGILDUKO NAIZ".

pertsonen sentsibilitatea behar dute itzulpena ona izan dadin, beraz horretan murgilduko naiz. Eta agian garatuko dira halako egitekoak, euskara zabal dadin, eta guk lana izan dezagun.

Itzulpen lana, ordea, ez da guztiz sistematikoa administrazioan ere, ezta?

Kontua da egungo hainbat eta hainbat itzultzaile automatikok ez dutela itzulpena matematikoki egiten. Lehen hala egiten zuten, hitz bat beti erdal hitz batekin lotzen zuten. Orduan, itzultzaileok interpretazioaren balio erantsia genuen gure alde. Egun, aldiz, memoria eta datu baseekin aitzineko itzulpenen sentsibilitatea ere hartzen dute. Ikusten dute hori nola egina izan den eta itzulpen hobea egiteko baliatzen dute. Sentsibilitatea dutela dirudi. Umorea eta guzti, batzuetan!

Etorkizunak izitzen nau, egia da, baina aldi berean betikoa pentsatzen dut: euskarak olatu hori atxiki behar du. Erdararen parera heldu behar du, bestela badakigu zein ondorio dituen giblean gelditzeak. Nire etorkizun oparorako, hatzak gurutzatuko ditut eta espero dut

literaturaren arloan ez zaidala lanik faltako. Sentsibilitatearekin itzultzea da gehien maite dudana, dibertigarriena da niretzat, beraz gustura arituko naiz.

Itzulpengintza automatikoak jada esparru zati bat jan duela jakinik, zein gisatako lanak egiten dituzu egun?

Une hauetan, denetarik. Batetik, gehiegi maite ez dudana lan automatiko bat, Ipar Euskal Herriko enpresa etxeen diagnostiko bat; bestetik, Euskal Kultur Elkarretaren harira, euskalki ezberdinetan eginiko elkarrizketen transkripzioa egin dut, hitzei azpi-tituluak jarri eta azkenik frantsesera itzuliz. Hau biziki interesgarria iruditu zait. Patxi Zubizarretaren nobela baten zati bat ere frantsesera itzultzen ari naiz. Lanik ez zait falta momentuz eta oso gauza interesgarriak egitea lortzen dut, zenbait lan aspergarriekin batera.

Euskal elkargoaren sorrerak eta bertan euskara hizkuntza "ofiziala" izendatu izanak, izan al du eraginik

itzulpengintzan?


Sorrerak bere horretan ez hainbeste, dagoeneko hainbat gauza egiten zirelako. 2005. urtean hasi nintzen eta garaian militanteek egiten zuten itzulpen lana. Orain, aldiz, geroz eta gehiago egiten da profesionalekin. Baina oraindik ere, ez beti. "Denek ulertzen dute frantsesez; beraz, ez du merezi", pentsatzen da usu. Bada egitekoa oraindik, baina egia da gauzak aldatu direla hemen ere, eta militanteen lan bolondresa izandakoa profesionalizatzen ari dela.

Ipar Euskal Herrian, euskaraz dakienak frantsesez ere badaki, salbuespenak salbuespen. Eta hor non gelditzen dira euskaldunon hizkuntza eskubideak?


Euskal talde edo eragile batek antolatzen badu mintzaldi, solasaldi edota eztabaida bat erdal hiztunekin, bistan da, nire ustez behintzat, itzulpena eskaini behar duela euskarara. Euskarari merezi duen lekua eskaini behar zaio. Zuzeneko bertsioa jaso nahiago duenak hori jaso dezake, baina beti ere nahiago baldin badu, ez modu inposatuan. ●



SAREAN ARRANTZATUA



rrunak saltzen, baina aste honetan argitaratuko da buletin ofizialean hori egiteko baldintza zehatzak zein diren. Lanik egin ezinda geratu direnek nahiago dute baldintza horiek ezagutu arte itxaron balorazioak egiteko: "Ez da gauza bera giltzurruna ospitale bati saldu ahal izatea edo guk geuk kudeatzea. Nahiago genuke prozesu guztia kontrolatuta, organoa erauztetik frijituta ogi tartatu bezelakoari eman arte; etekinak handiagoak dira horrela", azaldu dio haietako batek Beranduegiri. ●



Joe Biden, 2021eko Urrezko Danborra

Pandemia dela-eta Urrezko Danborrik ez ematea aurreikusten zuten Donostian, baina azken egunotako gertakariak egoera irauli dute. Tabernen itxiera dela-eta, tristurak eta amorrazioak hartuta zegoen asko eta asko asteburuan, jakin zen arte Joe Biden izango dela AEBetako presidente berria. Gure lagun amerikarra! Eta hain juxtu horregatik, hirian sumatzen zen hoztasunari aurre egin eta alaitasuna zabaltzeagatik, jasoko du danborra gu guztion presidentetarako. “Bai, bai, badakigu saria Donostiaren izena mundu

osoan zabaltzen dutenentzat dela, Xabi Alonso 'one club man' futbolariak bezala", azaldu digute antolakuntzatik. "Baina espero duguna da ahal duenean Biden gurera etortzea pintxo batzuk jatera eta Instagramera foto batzuk igotzea. Donostia merezi duen lekuan jarriko du horrek. Pentsa, pasa den urtean Realeko emakumeen taldeko hockey jokalariaik sarazeta bururatu zitzaion gutako bati. Bazenekien Realak hockey taldea zeukala? Ba hori, ez esan Bidenek ez duenik enbaxadore-lana hobeto egingo". ●




EUSKARALDIA

GEHIAGO, GEHIAGOREKIN, GEHIAGOTAN

Azaroaren 20tik abenduaren 4ra

EMAN IZENA!

www.euskaraldia.eus



Jakoba Errekondoren liburu berria

Etxeko landareak



25€

Orri kop.: 248

Landareak etxeko poza dira. Ongi zaintzen dituenak bizitzaren edertasuna jasotzen du opari. Liburu honek hobeto zaintzeko gakoak emango dizkigu: zein landare aukeratu txoko bakoitzerako, gaixotasunei nola aurre egin, landare bakoitza nola ureztatu, ongari naturalak nola egin, haziz doan ahala nola birlandatu... maite dugun landare hori nola ugaltu ere ikasiko dugu. Zaintzen asmatzeko beharrezkoena, lore bakoitza ezagutzea da. Liburu honetan deskubrituko dituzu bakoitzaren jatorria, beharrak eta gustuak. Bizitzaren ederra loratu dadila!

EROSTEKO

argia.eus/azoka
9433 7 15 45

 **ARGIA**
www.argia.eus

BIZI BARATZEA
www.bizibaratzea.eus